



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA

2018.12.04

Tolosako Udaletxean, 2018ko abenduaren 4an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udaltzako bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 4 de diciembre de 2018, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegi Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Kristina Pelaez Errazkin
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Bertaratu ez den zinegotzia:

Onintza Lasa Arteaga

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:(ordezkoa)
Paulino Alonso Eraso

Eguneko gaia zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:
2018ko urriaren 30eko Ohiko Osoko Bilkurakoa.

Orden del día

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 30 de octubre de 2018.



2. Euskara ikasten ari diren tolosarrei diru-laguntzak emateko arautzen duen udal ordenantzaren aldaketa hasieraz onartzea.
3. Euskararen erabilera normalizatzeko plana 2018/2022. VI Plangintzaldia onartzea.
4. Ordenantza aldaketa hasieraz onartzea. Etxe abereen arau-hauste larrien zigorrak ezartzeko eskumena Gobernu Batzarrari ematea.
- 5.-Tolosako Musika Banda Elkarteak gaur egun egiten dituen jarduerak Tolosako Udalak bere gain hartuko dituenaren berariazko zerbitzuaren aitopenen memoriaren onespena.
6. Onartzea kudeaketa gomendioaren hitzarmena, Donostiako Musika eta dantza eskolaren eta Tolosako Udalaren artekoa, Lan poltsak modu bateratuan kudeatzekoa, hauek musika eta dantza ikastetxeetan erabili daitezzen.
7. Musika Eskolako irakasleen zuzendaritzako eta Idazkaritzako ordu lektiboen gehikuntza onartzea.
8. Tolosako udaleko herritarrentzako arreta zerbitzua (UDATE) arautzen duen ordenantza hasieraz onartzea.
9. 2019 urterako taxien tarifak berrestea.
10. Emendakina jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta aprobetxamendu bereziari dagokion tasen ordenantza fiskalen 2019rako aldaketaren hasierako onarpenari.
11. Onartzea Tolargi S.L. enpresak pabiloia erosteko eskatutako mailegua.
12. 2018/2023 (2018/14 kreditu gaikuntzak), 2018/2032 (2018/15 kreditu transferentziak) eta 2018/2033 (2018/16 kreditu gehigarriak) dekretuen jakinarazpena.
13. 2018ko aurrekontuaren hiruhilabeteko exekuzioa berri ematea.
2. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza reguladora de subvenciones para los/las tolosarras que estén aprendiendo euskera.
3. Aprobación del Plan para la Normalización del Uso del Euskara. Plan de normalización del Euskera 2018/2022
4. Aprobación de la delegación de atribuciones en la Junta de Gobierno de las infracciones graves de la ordenanza municipal sobre animales domésticos.
5. Aprobación de la memoria de la declaración expresa de la actividad que en la actualidad realiza la Asociación Tolosako Musika Banda como servicio público municipal.
6. Aprobación del convenio de encomienda de gestión entre la Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia y el Ayuntamiento de Tolosa para la gestión unificada de bolsas de trabajo para ser utilizadas en los centros de enseñanza musical y de danza.
7. Aprobación del incremento de horas lectivas de profesorado en los puestos de Dirección y Secretaria de la Escuela de Música.
8. Aprobación inicial de la ordenanza reguladora del Servicio de Atención a la Ciudadanía (UDATE).
9. Ratificación de las tarifas de taxi del 2019.
10. Enmienda a la aprobación inicial de la modificación de la ordenanza de las tasas por ocupación del dominio público municipal para el año 2019.
11. Autorizar el préstamo solicitado por Tolargi, S.L. para la compra del pabellón.
12. Dar cuenta de los decretos de Alcaldía 2023/2018 (habilitación de crédito 14/2018), 2032/2018 (15/2018 transferencia de crédito) y 2033/2018 (16/2018 crédito adicional).
13. Dar cuenta de la ejecución del presupuesto del tercer trimestre del



TOLOSAKO
UDALA

- | | |
|---|---|
| 14. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko urriaren 1etik 31era. (2018/1.864 – 2018/2.054). | 2018. |
| 15. Orixe institutuaren eraikuntza ahalik eta azkarren hastea eskatzeko mozioa. | 14. Notificación de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 31 de octubre de 2018 (2018/1.864-2018/2.054). |
| 16. 2018ko euskararen nazioarteko egunerako adierazpen instituzionala. | 15. Moción para solicitar la pronta construcción del Instituto Orixe |
| 17. A25eko mozioa: Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna | 16. Declaración institucional con motivo del día internacional del euskara. |
| 18. Galderak eta eskaerak. | 17. 25 de noviembre, Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres. |
| | 18. Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

- | | |
|---|---|
| 1. Ondorengo akta onartzea: <u>2018ko urriaren 30eko Ohiko Osoko Bilkurakoa.</u> | 1. Aprobación de la siguiente acta: <u>Sesión ordinaria del 30 de octubre de 2018.</u> |
|---|---|

Izenburuan aipatutako akta aho batez **onartu** da.

- | | |
|---|--|
| 2. <u>Euskara ikasten ari diren tolosarrei diru-laguntzak emateko arautzen duen udal ordenantzaren aldaketa hasieraz onartzea.</u> | 2. <u>Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza reguladora de subvenciones para los/las tolosarras que estén aprendiendo euskera.</u> |
|---|--|

Partehartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia (Ogasun batzordeko lehendakaria): “*Apirileko osoko bilkuran onartu genuen Euskaltegiko ikasleek orain arte ordaintzen zituzten tasak prezio publiko batera izatea. Tolosan erroldatuta dauden ikasleek betetzen bazituzten Euskaltegiak jarritako baldintzak aukera zeukaten ikasturte bukaeran hobariak eskatzeko. Gauza da, tasak lotuta daudela eskatzailearen ahalmen ekonomikoarekin. Ikusi zen gaia ondo ez zegoela bideratuta. Ikastolako zuzendariarekin hitz egin ondoren erabaki zen prezio publiko bat izatea eta gaur egungo hobaria diru-laguntzera aldatzea. Prozesu administratiboa martxan jarri da eta hemen lehenengo urratsa ematen da, hau da udal ordenantzaren aldaketa hasieraz onartzea.* “



TOLOSAKO
UDALA

2018KO AZAROAREN 20EKO EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

AURREKARIAK

Aurkeztu den aldagetaren helburu nagusia, Tolosako herritarrak euskara ikastera bultzatzea da. Horretarako, indarrean dagoen ordenantza aldatu beharra dago, diru-laguntzak Aitzol Udal Euskaltegitik kanpo ikasten dutenentzako bakarrik bideratuak daudelako.

Horretaz gain, indarrean dagoen ordenantzak hobariak aurreikusten ditu Aitzol Udal Euskaltegian ikasten duten ikasleentzat eta legediak egoera hori aldatzeko eskatzen du.

Beraz, Tolosako Udalak, zehazki honako helburuak lortu nahi ditu ordenantzak aldatuz:

1. Aitzol Udal Euskaltegitik kanpo ikasten duten tolosarrek diru-laguntza jasotzen euskara ikasteagatik.
2. Aitzol Udal Euskaltegian ikasten duten tolosarrek ere diru-laguntza jasotzea.

Hau dena kontutan harturik, proposaturiko Ordenantzak diru-laguntza bat xedatzen du euskara ikasten duten tolosarrentzat, euskal hizkuntza ikasteak sortarazten dituen gastuei aurre egiteko.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Udalaren eskumena

- Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, bere 25. artikuluko 2)m) apartatuan dioenez, Udalaren eskumena da Kulturaren Sustapena egitea.
Era berean, apirilaren 7ko 2/2016 Legean xedaturikoaren arabera, Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea ere Udalaren eskumena da.
- Diru-laguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea) eta 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarrizko arauketa.

2.- Ordenantzaren izapidetzea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, Ordenantza honen izapidetzeak ondoko pausoak izan ditu:



TOLOSAKO
UDALA

- Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez zitezten.
- Ez denez alegaziorik aurkeztu, Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.
-

3.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantzen onspena udalbatza plenoaren eskumena da.

Beraz, teknikari honek ondoko ebazpen proposamena aurkezten du

EBAZPEN PROPOSAMENA

LEHENA.- Tolosako udalerrian *Tolosako herritarrak euskara ikastera bultzatzeko diru-laguntzak* arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa hasieraz onartzea

BIGARRENA.- Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta udaleko web orrian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta daudela ulertuko da.

Irizpen hau Euskara eta Hezkuntzako Batzorde Informatiboan aztertu eta bozkatu zen 2018ko azaroaren 20ean egindako bilkuran, bozketaren emaitza ondoko hau izan zelarik:



TOLOSAKO
UDALA

ALDEKO BOTOAK

- **JOKIN AZKUE**
- **MAITE RUIZ DE EGILAZ**
- **INAKI IRAZABALBEITIA**
- **NURIA CARBONELL**

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasierako onarpena** eman dio, Tolosako udalerrian *Tolosako herritarrak euskara ikastera bultzatzeko diru-laguntzak* arautzen dituen Ordenantzaren aldaketari.

- 3. Euskararen erabilera normalizatzeko plana 2018/2022. VI Plangintzaldia onartzea.** **3. Aprobación del Plan para la Normalización del Uso del Euskara. Plan de normalización del Euskera 2018/2022.**

Partehartzeak:

... Alkatea: *“Seigarren euskarako erabilera planaren 6. plangintzaldia da hau. Erabilera plana hau egiteko udal langileekin bildu dira UEMAko ordezkaria eta euskara departamentuko langileak. Aipatu behar da Tolosako udalarentzat euskara bere jarduera guztietan txertatutako zehar lerro bat dela eta horregatik bost ardatz nagusitan oinarritu duela bere plana, garrantzitsuena erabilera izanik. Beraz, helburu nagusienak izango dira.*

Batetik Zerbitzu hizkuntza, Udal instalazioetan Udalak euskara sustatuko duela adierazten duten elementuak jarriko ditu agerian, errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorretan euskara erabiliko da. Udalaren eta udalaren menpeko erakunde iragarkietan, publizitate-kanpainetan euskara erabiliko da beti eta baita udalerrian zabaldu beharreko agerietan ere. Udalaren langileen sortze hizkuntza euskara izango da, bai ahoz bai idatziz. Bigarren helburu nagusia, herritarrekiko harremanak. Herritarreko harreman idatzia duenean harreraro mahaietan beti izango ditu herritarren euskarazko eta elebrietako agiriak. Telefonoz eta aurrez aurrekoa lehenengo hitza euskeraz izango da. Hala ere kontutan eduki behar da geroko elkarrizketa ere euskeraz izan behar duela beti herritarrek espresuki gazteleraz egin nahi duela adierazten ez badu eskatzen. Hirugarren barne komunikazio eta lan tresnak. Udal bileretako hizkuntz nagusia euskara izango da. Lan ordutegiko ahozko harremanei dagozkionez kontutan eduki behar da jendaurreko lanpostuetan, bai leihatilan alde batean edo kalean lehenengo hitza euskeraz egin arren herritarrentzako pisu handia daukala udal langileek beraien



TOLOSAKO
UDALA

artean zein hizkuntzetan lan egiten duten. Horretarako, udal langileek euren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du Udalak. Laugarrena, kanpo harremanak. Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publikoekin, nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatuko dira. Haiei zuzendu beharreko dokumentazioan euskara bakarrik erabiliko da, eta beraiengandik gutxienez euskaraz jasotzea eskatuko zaie. Bosgarrena, Kudeaketa sistema. Udalaren hizkuntza politikaren baitan, ordezkari politikoen eginkizuna izango da Udalaren jarduera guztietan hizkuntza irizpideak betetzea eta betearaztea. Udalaren eta beraren erakunde autonomiadunen diru laguntzak esleitzerakoan -kultur, kirol eta aisialdi mailakoak batik bat-, Udalak kontuan izango du diruz lagunduko den jardueraren hizkuntza. Hori da plangintzaren edukia laburtuta."

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *"Helburu horiek inportanteak dira atzetik historial bat dagoelako. Azken urteetan Tolosako Udalean gobernuan egon diren indar guztiek bultzatu dutelako euskararen normalizazioa eta euskara erabilera bai zerbitzu eta lan hizkuntza bezala eta hori nabarmen izan da azken bi legegintzalditan eta arrazoi funtsezko bat egon da eta da Udalbatza hau osatzen dugun guztion elebidunak garela. Horrek posible egin du batzorde guztiak euskaraz egitea, osoko bilkura guztiak euskaraz egitea eta aurrera begira horrela jarraitu nahi badugu funtsezkoa da hemendik 7 hilabete barru egingo diren hauteskundeetan, hemen garen guztiok eta hona sarbidea edukiko dutena hautagaiak ateratzeko postuetan, behintzat, gai izatea Udaletxe honetan euskaraz jarduteko edo behintzat ez oztokatzea euskarazko jarduna. Eskatera hori bidezkoa dela hori eskatzea plana ari garelako onartzen eta bete ahal izateko osotasunean beharrekoa delako zein den Hemen gauden ordezkari politikoen profil linguistikoa."*

... Alkatea: *"Bide batez berri pozgarri bat emateko aprobetxatu nahi dut esateko nola Tolosako Udalak lortu berri duen Urrezko Bikain Ziurtagiria, hain zuzen euskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza kudeaketaren normalizazioaren maila egiaztatu eta aitortzen duen Bikain Ziurtagiria. Ziurtagiri hau urte askotako lanaren ondorioa da, bai gogora ekarri nahi nuke aurreko agintaldietan buru belarri aritu direnei zinetotzi eta harrei langileei eta nola ez eskerra haiei guztiei eta, baita ere, orain era horretan ari direnei eta, bide batez, lan honetan jarraitzera animatu."*

EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2018KO AZAROAREN 27KO IRIZPENA

AURREKARIAK

Aurkeztu den planaren helburu nagusia, Tolosako Udaleko langileak euskaraz lan egitera bultzatzea da. Horretarako, indarrean dagoen plana (2013/2017, V. Plangintzaldia) berritu beharra dago.

Euskara plan honen **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:



TOLOSAKO
UDALA

- Herritarrekiko harremanetan **euskara zerbitzu hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntz eskubideak errespetatuz.
- Euskara beste **administrazioekiko harremanetako** hizkuntza izan dadin bermatzea.
- Euskara **administrazio barneko lan hizkuntza** izan dadin bermatzea.

Hau dena kontutan harturik, proposatzen da Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, 2018/2022 epea hartuko duena onartzea.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Udalaren eskumena

- EAEko **Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak**, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.
- Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntz eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du, eta baita administrazioetako plantilletan bi hizkuntza ofizialak jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko **Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6 /1989 Legearen** V. titulua eta hori garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erregelamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik herri administrazioetako euskararen erabileraren normalizazioa prozesuaren oinarri ere badira.
- 86/1997 dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri die euskal herri administrazio guztiei.

2.- Izapidetzea

Plan honen izapidetzeak ondoko pausoak izan ditu:

- Hasierako onespena, aipatutako dekretuan araututakoaren arabera.
- Langileei elkarrizketak egin zitzaizkien beraien inpresioak planaren oinarri izateko.
- Plana egin eta gero, langileei aurkeztu zitzaien eta ekarpenak egiteko epea izan zuten, 10 laneguneko.
- Ez denez alegaziorik aurkeztu, Plana Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara (HPS) bidali da, haiek aldeko txostena bidal dezaten Tolosako Udalera.
- Txostena jaso eta gero, Euskara Batzordean diktaminatuko da Osoko Bilkuran aurkeztu edo ez, bertan onar dezaten.
- Osoko Bilkuran aurkezten bada, bertan Plana indarrean jartzea edo ez erabakiko da.

3.- Organo eskuduna

86/1997 dekretuan ezarritakoaren arabera, Euskararen Erabilera Normalizatzeko



TOLOSAKO
UDALA

Planaren onespena udalbatza plenoaren eskumena da.

Beraz, teknikari honek ondoko ebazpen proposamena aurkezten du:

EBAZPEN PROPOSAMENA

LEHENA.- *Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2018/2022 (VI. Plangintzaldia)* onartzea Euskara Batzordean.

BIGARRENA.- Plan hau eta dagokion espedientea Osoko Bilkuran aurkeztea onar dadin

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta prentsan argitaratzea.

Irizpen hau Euskara eta Hezkuntzako Batzorde Informatiboan aztertu eta bozkatu zen 2018ko azaroaren 27an egindako bilkuran, bozketaren emaitza ondoko hau izan zelarik:

ALDEKO BOTOAK

- Jokin Azkue
- Maite Ruiz de Egilaz
- Inaki irazabalbeitita.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Euskararen erabilera normalizatzeko plana (2018/2022) VI Plangintzaldia.

- | | |
|---|--|
| <p>4. Ordenantza aldaketa hasieraz onartzea. Etxe abereen arau-hauste larrien zigorrak ezartzeko eskumena Gobernu Batzarrari ematea.</p> | <p>4. Aprobación de la delegación de atribuciones en la Junta de Gobierno de las infracciones graves de la ordenanza municipal sobre animales domésticos.</p> |
|---|--|

... Alkatea: "Gure ordenantzaren arabera Udal osoko bilkurari dagokio etxe abereen arau hauste larrien zigorrak ezartzea eta eskumen hau Tokiko Gobernu batzarrera eskuordetzea proposatzen da. Horretarako ordenantza aldatu egin behar, hori da gaur egingo duguna, ordenantza aldatu, hasierako onarpena eman aldaketari, informazio publikoan jarri hogeita hamar eguneko epean eta ondoren behin betiko onartuko genuke."



TOLOSAKO
UDALA

UDALTZAINGOA ETA MUGIKORTASUNAK BATZORDEAREN 2018KO AZAROAREN 22KO IRIZPENA

AURREKARIAK

Lehena.- 6/1993 Legeak, urriaren 29koak, Animaliak Babestekoak bere III. Kapituluaren 32. artikuluan eta Tolosako Udaleko Etxe abereen udal ordenantzak bere IV tituluaren 14. artikuluan hau xedatzen dute:

1.- Arau-hausteei dagozkien zigorrak ezartzea honako organoei dagokie:

- a) Alkateei, arau-hauste arinetan.
- b) Udalaren osoko bilkurari, arau-hauste larrietan.
- c) Foru Aldundiaren eskudun organoari, arauhauste oso larria denean.

2. Udalek foru organoek ebatzi behar dituzten zigor espedienteak irekitzen dituztenean, ezarritako isunen zenbatekoak espediente ireki duen udalaren gordailuan sartuko dira.

Bigarrena.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 22.4 artikuluan hau xedatzen du: *"4. Osoko bilkurak alkateari eta tokiko gobernu-batzarrari eman diezazkieke bere eskumenak eskuordetzan; baina, salbuespen dira artikuluko honetako 2. paragrafoa a), b), c), d), e), f), g), h), i), l) eta p) idatz-zatietan eta 3. paragrafoan zehaztutakoak."* Honek kanpo uzten du q) idatz-zatia, non hau esaten duen: *"q) Legeek berariaz emandako gainerakoak."*

Beraz, honengatik guztiagatik ondoko proposamena luzatzen diot Udaltzaingoa eta Mugikortasuna Udal Batzorde Informatiboari, honen irizpena eman dezan, Udaleko Osoko Bilkuran eztabaidatua eta onartuta izan dadin.

PROPOSAMENA

Aipatutako guztia aintzat harturik, 7/1985 Legean, apirilaren 2koan, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituztenean aurreikusitakoaz baliatuz, gaur egun Osoko Bilkurarena den eskumena, Tokiko Gobernu Batzarrera eskuordetzea, Tolosako Udaleko Etxe abereen udal ordenantzaren arabera infrakzioak larriak diren kasuetan, dagokion irizpena egiteko eta hau aldekoa bada, dagokion Udaleko Osoko Bilkuran eztabaidatua eta onartuta izan dadin.

Beraz, Tolosako udaleko udalbatza plenoari proposatzen zaio ondoko irizpena onartzea:

IRIZPENA

LEHENA.- Ordenantza aldaketa hasieraz onartzea; Etxe abereen arau-hauste larrien zigorrak ezartzeko eskumena Gobernu Batzarrari ematea.



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta udaleko web orrian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Gobernu Batzarrari jakinaraztea.

Udaltzaingoa eta Mugikortasunak , 2018ko azaroaren 22ko bilkuran, proposamena onartzearen aldeko diktamina jaulki dute.

ALDEKO BOTOAK: Olatz Peon Ormazabal alkatea, Maite Ruiz de Egilaz EAJ, Ibai Iriarte San Vicente BILDU.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez hasierako onarpenera eman dio, Etxe abereen arau-hauste larrien zigorrak ezartzeko eskumena Gobernu Batzarrari emateko ordenantza aldaketari.

- 5.-Tolosako Musika Banda Elkarteak gaur egun egiten dituen jarduerak Tolosako Udalak bere gain hartuko dituenaren berriazko zerbitzuaren aitorpenaren memoriaren onespena.**
- 5. Aprobación de la memoria de la declaración expresa de la actividad que en la actualidad realiza la Asociación Tolosako Musika Banda como servicio público municipal.**

Partehartzeak:

... Alkatea: *“Tolosako Musika Bandak eta Tolosako udalaren arteko harremana egoera ezberdinak izan ditu. Gaur egungo ordenamendu juridikoan ez dirudi formula egokiena denik dirulaguntza bitarteko harremana izatea eta ez dio gainera errealitatean Tolosako Musika Bandak herrian betetzen duen zeregina isladatzen. Egoera honi irtenbide bat eman ahal izateko Iñigo Lizari letraduari eskatu genion txosten bat aurkeztu zezan, non Tolosako Musika Bandaren jarduna berriazko zerbitzuko publiko moduko aitorpena jasotzen zuen alde batetik, eta, bestetik, kudeaketa modu egokien zein izan zitekeen jartzeko indarra jarri iraupen luzeko harremanak zehaztea ezinbestekoa zela. Egia esan, herrietako Musika Banden egoera berezi hau ez da soilik Tolosan bakarrik gertatu, beste herrietan ere gertatu da. Orain egindako bide honetan balioan jarri nahi dut Tolosako Musika Bandako*



kideek izan duten pazientzia alde batetik soluzio bat bilatzen zen bitartean, baina bereziki izan duten inplikazioa soluzioaren parte izan direlako eta udalarekin batera ez irtenbide egoki bat bilatzearen alde jarri direlako.. Konturatu naiz baita ere bide honetan Tolosako musika bandako kideak atxikimendu izugarria dutela Bandan betetzen duten lan horretan erabat identifikatuta sentitzen direla, sentimendu asko azaleratu dira izan ditugun bileratan eta, gainera, hori ez dela gaurko kontua. Iñigo Lizariren txosten bertan azaltzen da nola Tolosako Musika Bandaren jardueran 1834. urtean hasi zen, 34 musikariek, baina ez zen 1984 urte arte benetako bizi artistikoa hasi eta honek gaur egun arte, 2018ra arte dirau. Hasieran 1830. urtean Tolosako Udalak 252 zilar kobre errealengatik Afizionatuen Martzial Musika elkarte kontratatu zuen. Denboraren poderioz Tolosako hiritarrak elkarte horrekin identifikatu joan ziren eta horregatik hiritarrentzako izen-emate ireki zen. Elkartu hau 1934 urtetik aurrera gutxinaka-gutxinaka udalekotzen joan da bere emanaldia herrikoi eta publikoak gehituz joan direnez. Egia da, baita ere, identifikazio honek elkarren eragina duela herritarrekin. Ez bakarrik Musika Eskolarekin duen loturagatik baizik eta teknikarien txostenak azaltzen den bezala herriko jai nagusietan eta bestelako jai egunetan izan duten esku-hartzeagatik ezinezkoa izango litzateke irudikatzea Tolosako Iñauteriak edo San Joan jaiak, adibidez, Musika Bandarik gabe. Baita ere, Tolosaren identitatearen edo nortasunaren parte garrantzitsua den ondare musikarien zaintza interpretazioarekin. Artxiboan besteak beste, eskuz idatzitako 243 partitura esanguratsu dauzka Juan Colmenero, Rufo Montilla edo Eduardo Mocoaren mailako musikariak eginak. Eta Tolosako musikarientzako bere doaiak eta prestakuntza garatu eta herritarren aurrean erakusteko tresna izan delako. Eta azkenik, lehen aipatu dudana bezala Tolosa, Musika Eskola, bere harrobi bihurtu delako historian zehar. Gaur egun Tolosako Musika Bandak osatzen duten 55 kideak Eduardo Musika Eskolako ikasleak dira edo izan dira. Beraz, esan dezakegu Tolosako Musika Banda eta Tolosako Udalaren arteko harremanean asmo badela etapa berri bat hastea non merezitako aitortza bat egiten zaion Tolosako Musika Bandari eta baita bere parte-hartzaile eta musikari guztiei.”

- ... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): “Olatz dena esan duzu. Azpimarratu, bai zerbitzu juridikoak eta Kultura teknikariak eginiko txostenean oso nabarmen azaltzen dela Bandaren lotura herri honekin. Historia 1834. urtean hasiko litzateke gaurdaino. Bitartean aldaketa asko izan dira eta legeak ere aldatzen doaz. Hemen 1993 edo 1995ean Pleno areto honetan, Udal Banda izatetik Tolosako Musika Banda sortzea erabaki zen eta urte batzuk geroago, hemen gaude legeak aldatu dira eta bilatu nahi izan da beste bide bat honekin segitzeko. Bilatu da, kosta egin da irtenbidea baina azkenean zerbitzu juridikoak egin duten lanari esker eta hogeita bosteko urteko aurre begirada baten aurrean gaude. Hemendik hogeita bost urtera eta non gaude, legea zein izango den baina behintzat, idatzita geratu dadila bandaren historia zein den herri honekiko eta ze lotura duen herri honekin. Olatzen esan duen bezala, garrantzitsua da oso. Esate baterako, Donostia bezalako hiri batek banda bat ez izatea harridura sortzen digun bezala, hemen Tolosan izatea horrelako kategoriko Banda izatea, Musika eskolako ikasleentzat harrobia eta erreferente izatea oso inportantea. Pozten gara, azkenean mahai gainean hau edukitzea eta zoriondu Bandakoei izan duzuen pazientziarengatik eta zuen jarrerarengatik ere. “
- ... Alkatea: “Gaur memoria onartzen dugu memoria, oinarri juridikoa era batera esateko eta hitzarmena honen ondoren gauzatuko da. “



TOLOSAKO
UDALA

KULTURA, FESTAK ETA GAZTERIA BATZORDEAREN 2018KO AZAROAREN 28KO IRIZPENA.

AURREKARIAK.

Tolosako udalaren enkarguz, Iñigo Lizari Letraduak Tolosako Musika Banda Elkarteak gaur egun egiten dituen jarduerak azaldu ondoren, eta elkarte honek herritarrei ematen dizkion zerbitzuak aztertuz gero, udalak, aipatu zerbitzuak berariazko jarduera gisa bere gain hartzeko proposamena luzatu du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, bere 312. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Izan ere, lege hori,, gure ordenamendu-juridikoari Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2014/23/UE zuzentaraua eta emakida-kontratuen adjudikazioa eta Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2014/24/UE zuzentaraua,(2004/18/CE zuzentaraua indargabetzen du), gehitu beharragatik sortzen da; biak dira 2014ko otsailaren 26koak.

Txostenean, Tolosako Musika Bandaren jardueraren azterketa xehatua jasotzen da, eta, beste batzuen artean, ondoko ezaugarri hauek azpimarratzen dira:

“TOLOSAKO MUSIKA BANDAREN jarduera 1834. urtean hasi zen 34 musikarirekin, baina ez zen 1884 urtera arte benetako bizi-artistikoa hasi eta honek, gaur egun arte, 2018ra arte, dirau. Hasiara batean, 1830. urtean, Tolosako Udalak 252 zilar-kobre errealegatik Afizionatuen Martzial Musika elkarte kontratatu zuen. Denboraren poderioz, Tolosako hiritarrak elkarte horrekin identifikatuz joan ziren eta horregatik, hiritarrentzako izen-ematea ireki zen. Elkarte hau, 1934 urtetik aurrera, gutxinaka-gutxinaka udalekotzen joan da bere emanaldi herrikoi eta publikoak gehituz joan dira; honen ondorioz, herritarrengandik jasotzen duen babesak in crescendo joan da eta jada, 1865. urterako, hiribilduak dotoreki janzten ditu bere musikariak, bertako enpresari batzuek, aipatutako uniformeak egiteko materiala dohainik eskaini zutela aprobetxatuz.

Banda herrialde hau txikitu zuten 3 gudetatik bizirik atera da, Iñaki Linazasororen hitzetan (“Tolosa Pueblo Musical”, Tolosako Udal Musika Bandaren historiari buruzko liburuaren egilea) garai horietan ere bere zerbitzuak eskaini zizkien tolosarrei, “arimako zauriak ixteko musikaren baltsamo magikoarekin”. Urteak joan eta etorri, Tolosako Udal Musika Bandak 18 Zuzendari-irakasle izan ditu eta gaur egun, 64 kidez osaturik dago, haietako 50ek oraindik ere lanean dihardutelarik.

Tolosan ospatzen diren jai-egunetan, TMB da kaleetan musika-animazioa jartzen duena; bertako partaide guztiak, Musika Eskolakoak dira eta baita Tolosako bizilagun



TOLOSAKO
UDALA

ere, bere estatutueta hala ezarrita dagoelako, hutsuneak Musika Eskolako Gazteen Bandako partaideekin bete behar dituzte.

Bandak eskaintzen duen zerbitzuko baldintzei jarraiki, bi osagai nagusi daude, soziala, bertako talentuaren sustapena daukana oinarrian eta ingurumenarekikoa, Okm musikala sortzen duena; azken finean, jardun amateurra delako, irabazi asmorik gabekoa eta beste alor batzuetan, kontratazio publikoan, enpresa ezberdin eta operadore ekonomikoen konpetentzian ematen diren irabazirik ez duena.

TMB-k ez ditu Tolosako herritarren aisia eta divertimentoa bakarrik sustatzen, gainera, herritarren zati handi bati bestelako zerbitzua ere eskaintzen dio, musikari gazte askok TMB-a duelako eredutzat eta haien bokazioetarako inspiraziotzat jotzen dutelako; horregatik, beste edozein baliabidek baino gehiagok kultura eta bokazio musikala finkatu eta bermatzeko balio du eta zalantzan jarri ezin den zerbitzua eskaintzen dio Tolosako MUSIKA ESKOLARI. Hala, elkarrekiko feedback-a sortzen da, izan ere, bertan ikasle gehiagok izena ematea bultzatzen du, ESKOLA TMB-ren harrobi baita; era berean, TMB-ak bere jarduera bermatua du MUSIKA ESKOLAN hasten diren bokazio berriei esker, horiek izango baitira, gerora, TMB-ko kide berriak.

Honetaz gain, TMB-ak Toki Administrazioari bestelako zerbitzu batzuk ere ematen dizkio; batzuetan MUSIKA ESKOLA bera da zerbitzu hauek jasotzen dituen eta beste batzuetan berriz, udal artxiboa. TOLOSAKO BANDA KO ARTXIBOA, partitura ezberdinekin osaturik dago; TMB-ak bere bizitza artistikoan zehar zuzendu eta jo dituen partiturak biltzen dira bertan.

TOLOSAKO BANDA KO ARTXIBOAK, eskuizkribatutako 243 partitura dauzka, beste guztiak, 2683, bandak erabili dituen inprimatutako obrak dira. Nabarmentzekoak dira entitatearen zuzendari izandako Mokoroa eta Beobidek idatzitako obrak, Rufo Montillak obra batzuei egindako konponketak eta baita TMB-ko kide batzuek egindakoak; hala nola Juan Comenerok, Garatek, etab... Eskuizkribatutako partitura orokorrak konpositore berak idatzitakoak dira gehienbat, eskuizkribatutako particella-k berriz, entitateko bertako kopiatzaileek egindakoak dira. Artxibo honetan egiten diren ekarpen berriak, inprimatutako partiturak izaten dira, normalean, erositakoak.

TMB-k egiten duen lana zerbitzu publikoa izanik, berau subentzionatzea ez da formula juridiko egokiena kontratu bidez jarduera bat ordaintzearekin alderatuta, izan ere, defendatu behar da egiten ari dena zerbitzu baten kontratazio irregularra dela."

Kultura, Festak eta Gazteriako Zerbitzuburuak, bere aldetik, Musika Bandako zerbitzua Tolosako udalak berariazko zerbitzu gisa hartzearen aldeko txostena aurkeztu du, beharrezkoa den kontratazio-jardunbidea ahalbideratzeko. Izan ere, Teknikariak, ondoko azalpenak egin ditu:



Tolosan musika banda guztiz errotuta dagoen zerbitzua da. 1834 garren urtean hasi ziren jarduera hauek eta gaur arte jarraitu dute ezaugarri batzuekin eta besteekin, 1934tik aurrera banda nolabait "munizipalizatu" egin zela esan daitekeelarik, eta 1995tik aurrera, udalaz aparteko erakunde bezala izan bada ere, herriko bizimodu kulturala aberasten eta alaitzen segi duelarik.

Musika bandak bere historian zehar herriaren kultur-bizitzan funtsezko garrantzia izan du, arrazoi askorengatik.

1) Herriko jai nagusietan eta bestelako jai-egunetan izan duten eskuhartzeagatik, dantza eta dibertsiorako nahiz ekimen ofizialen protokoloaren lagungarri. Ezinezkoa da irudikatze Tolosako iñauteriak edo San Joan jaiak musika-bandarik gabe.

2) Tolosaren identitatearen parte garrantzitsua den ondare musikaren zaintza interpretazioarekin, lan hauek zabaltzen eta berriak sortzen suposatu duen estimuloagatik. Kontuan izan behar da Tolosa iñauterietarako historian zehar sortu den errepertorioa Tolosatik kanpo zabaltzeko ezinbesteko baldintza izan diren grabazioak eta partituren edizio eta zabalkundea musika bandari esker egin dela. Artxiboan, besteak beste, eskuz idatzitako 243 partitura esanguratsu dauzka, Juan Colmenero, Rufo Montilla edo Eduardo Mokoroaren mailako musikariek eginak.

3) Tolosako musikarientzako bere dohaiak eta prestakuntza garatu eta herritarren aurrean erakusteko tresna izan delako, kontzertu, kalejira eta dantzaldietan.

4) Tolosa Musika Eskola bere harrobi bihurtu duelako historian zehar, honek musika ikasleentzat suposatzen duen pizgarri balioa oso garrantzitsua delarik. Horrela, esan daiteke egun Tolosako Musika Banda osatzen duten 55 kideak Eduardo Mokoroa Musika Eskolako ikasle direla edo izan direla."

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- JARDUERA BAT NORK BERE GAIN HARTZEKO LEGE-TESTUINGURUA.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluan zera dio: "Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake"; bestaldetik **25.2 artikuluan** zera aipatzen du: "Udalerriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu: **m) Kultura eta kiroletako jarduerak zein instalazioak; aisialdia betetzea; turismoa**".



Beste alde batetik, **Toki-arabideak emandako eskumenetatik harago, TOLOSAKO MUSIKA BANDAK** egiten dituen jarduerak **TOLOSAKO UDALAK bere gain hartuko dituenaren berariazko aitorten hau, hainbat nazioarteko erakundeetatik errekonozimendua jaso duten hainbat eskubide betetzetik dator, aipatutako erakunde hauekin Espainiako Erreinuak lotura du nazioarteko zenbait hitzarmen izenpetuta dituelako.**

Bestaldetik, Iñigo Lizari j.ren txostenean ondoko hauek jasotzen dira: “Espainiar Konstituzioko (EK) 96.1 artikulua ondorengo xedatzen du: *“Nazio arteko tratatuak balioz eginak, Espainian ofizialki argitaratuz gero, barne ordenamenduaren parte izango dira. Haien erabakiak bakar-bakarrik derogatu, aldatu edo baztertu ahal dira itun hauen arabera edo nazioarteko Zuzenbide arau orokorren arabera”*. EK-ko 10.2 artikulua zera dio: *“Konstituzioak onartzen dituen oinarrizko askatasun eta eskubideei dagozkien arauak honela adieraziko dira, hots, Giza Eskubide Orokorren adostasunez eta berauei dagozkien tratatu eta nazioarteko akordioen arabera hauek Espainiak berretsi baititu”*. EK-ko 44.1 artikulua honako hau xedatzen du: *“Botere publikoek kulturara bideratzea bultzatu eta babestuko dute, berton denek eskubidea izanik”*. 53.3 artikulua berriz, zera adierazten du: *“Hirugarren kapituluaren aitortuak onartze, errespetu eta babesaz adieraziko du legeztapen positiboa auzi praktika eta botere publikoen ekintzak. Bakarrik aipatu ahal dira jurisdikzio arruntaren aurrean aurrera eramaten duten legeek erabakitzen duten arabera”*.

Horiek horrela, **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak *pertsona orok “arteaz gozatzeko eskubidea” duela ezartzen du, gizabanakoak eta gizarteak haien humanitatea garatu eta adierazteko bidea delako. Ahalmen-sortzaile artistikoa ere kulturen garapenerako beharrezkoa da, munduan zehar kultur-aniztasuna babestu eta sustatzeko eta *gizarte demokratikoen* funtzionamendu zuzenerako.***

Testuinguru honetan, *International Music Council (IMC)*, Musikaren Nazioarteko Kontseiluak, *“Musika Eskubideen aldeko Aldarrikapena”* sustatu du, zeina eskubide artistikoen aldeko adierazpen garrantzitsua den eta zeinari esker, **Musikaren Nazioarteko Kontseiluko,(International Music Council) IMC-ko Musikaren Bost Eskubideak** gauzatu diren.

International Music Council (IMC) UNESCOk sortu zuen 1949an eta musika arloan lan egiten duten elkarte eta instituzioan sare handiena da. Musikaren Nazioarteko Kontseiluak musika guztiongana heltzea eta musikak herrialde guztietan duen balioa sustatzen du. Bere kide eta sareen bidez, IMC 150 herrialdeetako 1000 elkarte eta musikaren inguruko ezagutzak eta bizipenak partekatzeko irrikitan dauden 200 milioi pertsona baino gehiagotara heltzen da.

Musikaren Nazioarteko Kontseiluko,(International Music Council) IMC-ko Musikaren Bost Eskubideak “Musika Eskubideen aldeko Aldarrikapena”ren bidez ezartzen dira, hauek direlarik:



TOLOSAKO
UDALA

1. *IMC-ko Musikaren lehenengo eskubidea.*
Ume eta heldu guztiak dute musikalki askatasunean adierazteko eskubidea.
2. *IMC-ko Musikaren bigarren eskubidea.*
Ume eta heldu guztiak dute hizkuntza eta gaitasun musikalak ikasteko eskubidea.
3. *IMC-ko Musikaren hirugarren eskubidea.*
Ume eta heldu guztiak dute ezagutza musikala eskuratzeko eskubidea parte-hartzea, entzutea, sormena eta informazioaren bidez.
4. *IMC-ko Musikaren laugarren eskubidea.*
Musikari guztiak dute haien artea garatzeko eta komunikabide ezberdinetan zehar zabaltzeko eskubidea, horretarako egokiak diren baliabideekin.
5. *IMC-ko Musikaren bosgarren eskubidea.*
Musikari guztiak dute haien lanagatik aitortpena eta ordainsaria jasotzeko eskubidea.
*Tolosako Udalak **IMC-ko (International Music Council) Musikaren Bost Eskubideak** "Musika Eskubideen aldeko Aldarrikapena"-rekin bat eginez, eta dagoeneko aitortuta dauden eskubideen osagarri bezala, Tolosako Musika Eskolak jada bermatzen dituenak, aitortu nahi du **gaur egun Tolosako Musika Bandak (TMB) egiten dituen jarduera guztiak Tolosako Udalak bere gain hartuko dituela, herritarrei ematen zaion zerbitzu publiko bezala hartzen delako eta baita herriari berari ere, udal eskumenekoak diren alorretan.**"*

"Memoria honen hasieran aipatu den bezala, 9/2017 Legeak, indarrean dagoen SPKL onartu zuena, zerbitzu-kontratuen barruan, modalitate bat ezartzen du, non herritarrei zuzenean zerbitzua ematen dieten prestazioak arautzen dituen eta administrazioaren aldeko zerbitzuekin uztartu daitezkeen. Horregatik, kontratu honek guztiz asetzen ditu TOLOSAKO UDALAK bete behar dituen beharrek, herritarrek eta MUSIKA ESKOLAREkin dauzkan jarduerak betetzen dituelako. MUSIKA BANDAKO jarduerak TOLOSAKO UDALAK bere gain hartzeko berariazko aitortpena egiteko akordioan administratuen aldeko prestazioak zehazten dira eta izaera juridiko, ekonomiko eta administraziozkoa duten aspektuak arautuko dira; hala, zerbitzuaren erregimen juridikoa ezartzeak berarekin dakar kontratu honen prestaketa lanen hasiera, ondoren kontratazio-espedita onartu ahal izateko zerbitzuaren lizitazio eta adjudikazioarekin aurrera egiteko.

Zerbitzuetako kontratu mota hau SPKLren 312. artikuluan arautzen da.

312. artikulua. Herritarrei prestazio zuzenak eskaintzeko zerbitzu kontratuek izan beharreko berezitasunak.

Herritarrei prestazio zuzenak eskaintzeko zerbitzu kontratuetan, honako betebeharrak hauek bete beharko dira:

- a) **Izaera horretako zerbitzu bat kontratatu aurretik, zerbitzu horren araubide juridikoa zehaztu beharko da, zeinaren bidez berariaz adierazi beharko baita Administrazioak jarduera propio gisa hartzen duela jarduera jakin hori eta,**



halaber, administratuek zer prestazio jasoko dituzten zehaztu eta zerbitzu-prestazioaren ezaugarri juridiko, ekonomiko eta administratiboak arautuko baitira.

- b) Mota horretako zerbitzu kontratu baten esleipendunak hitzartutako jarraitutasunarekin eskaini behar du zerbitzua eta partikularrei aurrez zehazturiko baldintzak bermatu behar dizkie – hala badagokio, finkatutako kontraprestazio ekonomikoaren bidez–; zerbitzua egoki eskaintzen dela zaindu behar du; zerbitzuarekin loturiko jarduerak hirugarrenei eragindako kalteak ordaindu behar ditu –Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik sortutakoak salbu–; eta, hala dagokionean, kontratuaren arabera entregatu beharreko obra eta instalazioak kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian entregatu behar ditu.
- c) **Artikulu honetan arauturiko zerbitzuei atxikitako ondasunak ezingo dira bahitu.**
- d) Kontratataren ez- betetzeak kalte larriak eta beste bitarteko batzuen bidez konponezinak diren kalteak eraginez gero zerbitzuari eta Administrazioak kontratua indargabetzea erabakitzen ez bada, kontratua bahitu edo kontrolatzea erabaki dezake, kalte hori desagertu artean. Kasu guztietan, benetan sorturiko kalte- galerak ordaindu beharko dizkio kontratistak Administrazioari.
- e) Administrazioak mantenduko ditu herritarrei prestazio zuzenak eskaintzeko zerbitzuen jarduera egokia ziurtatzeko beharrezkoak diren polizia - ahalmenak.
- f) Oro har, herritarrei prestazio zuzenak emateko zerbitzuak administrazio kontratatzaileak erabiltzen ez dituen areto edo instalazioetan eskainiko dira. Hori posible ez bada, horren arrazoi objektiboak azaldu beharko dira. Kasu horietan, lan-taldeak ez nahastearren, enpresa kontratataren pertsonala Administrazioaren zerbitzura dauden langileen espazio eta leku beretan egon ez daitezten saiatu beharko da, eta enpresa kontratataren langileak eta bitartekoak dagozkion zeinu bereizgarriekin identifikatu beharko dira (adibidez, uniformeak eta errotulazioak).
- g) 313. artikuluan adierazitako indargabetze- arrazoiez gainera, artikulu honetan aipatutako zerbitzu-kontratuak indargabetzeko kausak izango dira 294. artikuluko c), d), eta f) letretan adierazitakoak».

Modu honetan, TMB bezalako banda bati ordainketa egitea ez litzateke ia mesede edo esker oneko keinu bat izango, diru-laguntzekin den bezala, baizik eta herritarrarentzat eta herriarentzat berarentzat zerbitzu publiko bat eskaintzeak dakarren eskubide bat; Udalak bere gain hartuko duen zerbitzu publiko bat eta bere prestazio-educia kontratu bidez konprometituta geldituko da. Honekin batera, herritarrari bermatutako zerbitzu publikoa izateaz gainera, Musikako Bosgarren Eskubidea asebetetzen da “musikari



TOLOSAKO
UDALA

guztiek dute haien lanagatik aitorpena eta ordainsaria jasotzeko eskubidea”, dagokion mekanismo juridikoaren bidez.

Modu honetan, TOLOSAKO MUSIKA BANDA elkarteak eskaintzen duen zerbitzua, dagokion bezala izendatua izango da, UDAL MUSIKA BANDA. Udalak, zerbitzu hau zeharkako eran kudeatuko luke, zerbitzu-kontratu bidez.”

9/2017 Legearen 25. eta 26. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratu honek izaera pribatua izango luke. Izan ere, 25,1.º).1º artikuluan xedatutakoaren arabera, sormen edo interpretazio artistikoari buruzko kontratuek izaera pribatua izango dute. Hala ere, 26.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hauen prestakuntza eta esleipena, 9/2017 Legearen Bigarren Liburuko I Tituluko I Kapituluko 1. eta 2. Ataletan xedaturikoa izango da aplikagarria, zera, 115tik-187ra artikuluetan xedaturikoa. Honek esan nahi du, Administrazio Publikoen kontratuetarako xedaturikoa izango litzatekeela aplikagarria kasu honetan.

2.- ZERBITZUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

9/2017 Legearen 312.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalak, berariazko zerbitzua aitortzeaz gain, Musika Bandaren oinarrizko araubide juridikoa zehaztu behar du. Hone hemen proposamen den araubidea, Iñigo Lizari J.ren txostenean jasotakoaren arabera:

- a) *“Gaur egun TOLOSAKO MUSIKA BANDAk (TMB) egiten dituen jarduerak Tolosako Udalak bereganatuko ditu ikuspegi ezberdinetatik herritarrari eta baita herriari berari ere, zerbitzu publiko bat eskaintzen diolako; hori udal eskumena denez, TOLOSAKO UDALAk beretzako hartzen du betebeharrak hau Tolosako hiribilduko herritarrari zerbitzu zuzena eskaintzeko UDAL MUSIKA BANDA bezala.*
- b) *UDAL MUSIKA BANDA zerbitzua eta gaur egun TOLOSAKO MUSIKA BANDA elkarteak TOLOSAKO UDALari eskaintzen dizkion beste zerbitzu batzuk eta zeharka, bertako herritarrei, TOLOSAKO UDALAk berak burutuko ditu lizitazio publiko baten bidez egingo duen zerbitzu-kontratu batekin, SPKLk bere 312. artikuluan aurreikusten duen herritarrei prestazio zuzenak eskaintzeko zerbitzu kontratu motarekin. Zerbitzu hauei CPV (Common Procurement Vocabulary) kodea dagokie: CPV 923121301 “musika bandak”, 92312000-1 “zerbitzu artistikoak” eta 92000000-0 “kultur eta kirol zerbitzuak”.*
- c) *UDAL MUSIKA BANDaren zerbitzuak eman behar dituen esleipendunak, herritarrentzat emanaldi ohiko eta ez-ohikoak egin beharko ditu herrian bertan, formatu, testuinguru eta modalitate ezberdinetan; hauek denak kontratazio-*



espedientearen barruan onartuko diren pleguetan finkatuko dira eta TOLOSAKO MUSIKA BANDAREN UDAL ARTXIBOAn dauden partiturak interpretatu beharko ditu.

- d) Herritarrari egingo zaizkion emanaldietan interpretazio musikalaren kalitatea bermatzeko, aurretik, esleipendunak hainbat entsegu egin beharko ditu horretarako kontratazio-espedientearen barruan onartuko diren pleguetan finkatuko diren udal-aretoetan edo Udalak zehazten dituen tokietan; TOLOSAKO MUSIKA ESKOLAKo ikasleentzat ere irekiak egongo dira.*
- e) Zehaztutako emanaldiak egingo dituen UDAL MUSIKA BANDAKo kideek, bere osotasunean, TOLOSAKO MUSIKA ESKOLAKo ikasleak izan beharko dute eta plaza bat hutsik geratu ezker, GAZTEEN MUSIKA BANDAKo kideekin bete beharko da.*
- f) Bandako musika-tresnek herritarrei zerbitzu zuzena eskaintzen dien kontratuarekiko atxikitutako ondasun-izaera izango dute eta zerbitzuari loturiko ondasunak izanik ezingo dira enbargatu.*
- g) Kontratuaren ordainketa eta iraupena zehaztu beharko dira, nahikotasunez bermatu ahal izateko kontratuarekin zuzenean lotutako inbertsioen berreskuratzea, hala musika-tresnak nola bandako kideen uniformeak, esleipendunak hauek ezin baititu beste jarduera batean berrerabili eta kostu garrantzitsua dira; horregatik, gomendagarria da zerbitzuen emakidan aurreikusten diren 25 urteko mugaraino jotzea, amortizazioaren kostua urte horietan zehar banatzeak UDALAK urtero ordaindu beharreko kopurua murrizten baitu, musika-tresnek duten balio-bizitza oso luzea delako.*
- h) Bandako Zuzendaritza Musikala TOLOSAKO MUSIKA ESKOLAKo irakasleren baten kargura joango da; beti ere, Irakasle-Zuzendari izateko, esperientzia eta formakuntza artistikoan oinarritutako gaitasun-profesionala ziurtatzen badu, zeina kontratazio-espedientearen adieraziko den.*
- i) Bandako Zuzendaritza Musikala kontratuaren arduraduntzat izendatuko da eta bere egikaritzea gainbegiratu eta beharrezko erabakiak eta berauek burutzeko dagozkion neurriak hartu beharko ditu adostutako zerbitzuaren funtzionamendu zuzena bermatzeko; beti ere, pleguek aitortzen dizkieten eskumenen barruan.*
- j) UDAL MUSIKA BANDAREN zerbitzuak eskaini behar dituen esleipendunari, egin behar dituen entsegu eta emanaldietatik kanpo, TOLOSAKO MUSIKA ESKOLAK musika-tresnak eskatzen badizkio, hauek uztera behartuta egongo da. MUSIKA ESKOLAK tresna hauek zaindu eta jaso dituen egoera berean itzuli beharko ditu.*



TOLOSAKO
UDALA

k) UDAL MUSIKA BANDAREN zerbitzuak eskaini behar dituen esleipendunak TOLOSAKO BANDAREN ARTXIBOAN partitura berriak gehitu beharko ditu berau aberasteko eta aurkibidea eguneratu beharko du."

3.- ESKUDUNTZA DUEN ORGANOA

Udal titulartasuneko zerbitzua sortu, eta haren araubide juridikoa onartzea, udalbatza plenoari dagokio, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.f) artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, erabaki horiek korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutua behar dute, aipatu den Legearen 47.2.k) artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz.

Beraz, Tolosako udaleko udalbatza plenoari proposatzen zaio ondoko irizpena onartzea:

IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako Musika Banda Elkarteak gaur egun egiten dituen jarduerak Tolosako udalak bere gain hartzea, berariazko zerbitzu publiko gisa.

BIGARRENA.- Zerbitzu publiko honen oinarrizko araubidea onartzea, irizpen honetan jasotakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu hau zeharkako eran kudeatzea, zerbitzu-kontratu pribatu baten bitartez.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek Tolosako Musika Bandari jakinaraztea.

Kultura, Festak eta Gazteria Batzordekideek, 2018ko azaroaren 28ko bilkuran, proposamena onartzearen aldeko diktamina jaulki dute.

ALDEKO BOTOAK: Begoña Tolosa, Núria Carbonell, Nerea Letamendia, Igor Ezenarro.

EZ BERTARATUAK: Kristina Pelaez, Cristian Fernandez.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez,



TOLOSAKO
UDALA

Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako Musika Banda Elkarteak gaur egun egiten dituen jarduerak Tolosako Udalak bere gain hartuko dituenaren berariazko zerbitzuaren aitopenearen memoria.

6. Onartzea kudeaketa gomendioaren hitzarmena, Donostiako Musika eta dantza eskolaren eta Tolosako Udalaren artekoa, Lan poltsak modu bateratuan kudeatzekoa, hauek musika eta dantza ikastetxeetan erabili daitezzen.
6. Aprobación del convenio de encomienda de gestión entre la Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia y el Ayuntamiento de Tolosa para la gestión unificada de bolsas de trabajo para ser utilizadas en los centros de enseñanza musical y de danza.

Parte-hartzeak:

... Alkatea: *Tolosako Musika Eskolako zuzendariak eginiko proposamena da: udal honi hitzarmen bat izenpetzea Donostiako Udalaren Musika eta Dantza eskolarekin, irakasleen lan poltsa bateratu bat sortzeko hautaketa prozesuetarako. Horrela Tolosako Udaleko Musika Eskolak izan ditzakeen aldi baterako pertsonal beharrei erantzuteko. Hitzarmenaren klausulak eranskinean daude.*

GIZA BALIABIDEAK ETA UDAL ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN 2018KO AZAROAREN 27KO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENIK.- Tolosako udaleko Musika Eskolako zuzendari A.k, 2018ko azaroaren 5ean egindako idazkian, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Musika Eskoletako ordezkariak Durangon egindako bileraren berri eman du. Bileran hartan, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko kideak bildu ziren, musika eta dantzako irakasleen lanpoltsa bateratuen sustapena lantzeko helburuarekin, horrelakoak lantzeko tokiko esparruetan dauden zailtasunak ikusita.

Musika Eskolako Zuzendariak, jardunbide bateratu horretan parte hartzea proposatu du, ondoan aipatzen diren arrazoietan oinarrituta.



BIGARREN.- Euskal Herriko Musika eta Dantza Eskolen artean elkarlan esparru historiko bat dago, emaitzak eman dituen hainbat espezialitatetako irakasleen lan poltsak sortzen, jarraian adierazita dagoenez:

1. Horretarako, 2007an Donostialdeko Ikastetxeetako zuzendariak hasi ziren haien arteko bilera batzuk egiten, eta 2008an adostu zuten elkarrekin lan-poltsa batzuk eratzea. Orduan Donostiako, Errenteriako, Andoaingo, Lasarte-Oriako eta Lezoko Udalek parte hartu zuten.
2. 2011n, aurreko esperientzia batean oinarrituta, bigarren lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zen gai berari buruz; hitzarmen horretan Donostiako, Irungo, Lasarte-Oriako, Tolosako, Orioko, Beasaingo, Errenteriako eta Lezoko udalek parte hartu zuten eta guztientzako zerrenda komunak eta bateratuak kudeatzeko irizpideak zehaztu ziren.
3. Bi prozesuak baloratu dira eta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko (EHME) kide diren hainbat ikastetxek egindako eskaeren ondorioz, bilera batzuk egin dira, Eskola eskatzaile horien premiei erantzuteko irakasle poltsa batzuk osatzeko.
4. 2016an hainbat bilera egin ziren Euskal Herriko Musika Eskolen Eskolen elkartearekin, oinarriak eta irizpideak adosteko aukerak bilatzeko. Hortik prozesu bat sortu zen, eta bertan 26 eskolak hartu zuten parte.

HIRUGARREN.- Aurreko elkarrizketa eta ikerketa horiek tarteko, aukera ikusi da eskola kopuru handi batekin hitzarmenak egiteko. Kudeaketa errazteko, banan-banan sinatuko dira eskola bakoitzak dituen behar eta ezaugarri guztiei bide emateko beharrezko hitzarmen guztiak.

LAUGARREN.- Eskola sustatzaileak 2018-19 Kudeaketa Planaren 1.4.1. puntuan honako hau jasotzen du 2019-2021 aldirako lan poltsak sortzeari buruz:

1. Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearekin (EHME) eta Nafarroakoarekin (ASEMNA) batera lan egingo da. Helburua da hiru hiriburuen inplikazioa lortzea, lurraldeko Musika eta Dantza Eskola guztietarako poltsa bakarrak ezarri ahal izateko eta denak batera kudeatzeko.
2. Aurreko urteetako esperientziak erakusten du komeni dela sarean lan egitea, eta eskolentzat eta bitarteko langileentzat onuragarria dela deialdi bat baino gehiagotara joan behar ez izatea, kudeaketa eta egin beharreko ahaleginak erraztu egiten baitira.
3. Irailean hasiko dira prozesuaren oinarriak eratu eta sinatzeko hitzarmenen izapideak, eta asmoa da abendu amaiera baino lehen argitaratzea eta ikasturtea amaitu baino lehen burutzea probak eta balorazioak.

BOSGARREN.- Jarduten ari diren bi administrazioek badakite zein zaila den tokiko esparruan musika eta dantzako irakasleen lan poltsak sortzeko hautapen prozesuak egitea, kudeaketa materialaren konplexutasuna eta deialdia egiten duen entitateari sortutako kostu ekonomikoak direla eta. Gainera, tokiko entitate gehien kasuetan,



TOLOSAKO
UDALA

horrelako prozesuak egiteko espezializatutako jendea falta da. Halaber, aldi berean prozesu eta deialdi ugari egoteak administrazioari baliabideak barreiatzea eta kostuak biderkatzea dakarkio, baita prozesuetan parte hartzeko interesa duten herritarrei ere.

SEIGARREN.- Tolosako udaleko Musika Eskolak proposatu du hautaketa prozesu bateratu bat egiteko jarduketa garatzea, esparru komun bat ezartzearen abantailak kontuan hartuta. Hautaketa prozesuak lurraldeko Musika eta Dantza Ikastetxeen, beren tokiko autonomia erabilita hartan parte hartzen dutenen, beharrei erantzun behar die. Hauek dira abantaila horietako batzuk:

- Hautaketa irizpide berberak aplikatzea merezimenduak balioestean.
- Aldi berean hainbat hautaketa prozesutan parte hartzen ari diren hautagaien ihesetik eratorritako gainkostuen azaroa konpontzea.
- Prozesuak egitearen kostu ekonomikoa eta giza baliabideena murriztea.

ZAZPIGARREN.- Helburu hauek ikusita, Tolosako Musika Eskolako zuzendariak proposatu dio udal honi hitzarmen bat izenpetzea **Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin**, honako xedearekin: Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolari **gomendatzea irakasleen lanpoltsa bateratuak sortzeko hautaketa-jardunbidea gara dezala**, Tolosako udaleko Musika Eskolak izan ditzakeen aldi baterako pertsonalaren beharrei erantzuteko. Hitzarmen hori, erakunde publikoen arteko lankidetzaz hitzarmenaren izaera izango du.

AZTERKETA JURIDIKOA

LEHENIK.- Tolosako udaleko Musika Eskola, Tolosako udaleko zerbitzu publikoa da. Zerbitzu hau, udalaren eskumen propioa da, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, bere 17.20 artikuluan eta Zazpigarren Xedapen Iragankorra xedatutakoaren arabera.

Tolosako udaleko Lanpostuen Zerrendan dagoen informazioaren arabera, Musika Eskolako Irakasleak enplegatutako publikoak dira, lan-kontratadun langileak. Langile hauen hautaketa ondorengo legeria hauek arautzen dute:

- 2/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 103 artikuluan xedatutakoaren arabera, lan-kontratadun pertsonala hautatu behar da ondoko printzipioetan oinarritutako prozesuen bitartez: berdintasuna, publikitatea -dagokion Lan Eskaintza Publikoa aurretik onartuta-, merezimendua eta gaitasuna.
- 5/2015 Errege-Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatutako Publikoen Oinarriko Estatutua arautzen duenak, bere 55.2 artikuluan xedatzen ditu enplegu publikora sartzeko irizpide nagusiak: *"2. Las Administraciones Públicas, entidades y organismos a que se refiere el artículo 2 del presente Estatuto seleccionarán a*



TOLOSAKO
UDALA

su personal funcionario y laboral mediante procedimientos en los que se garanticen los principios constitucionales antes expresados, así como los establecidos a continuación:

- *a) Publicidad de las convocatorias y de sus bases.*
 - *b) Transparencia.*
 - *c) Imparcialidad y profesionalidad de los miembros de los órganos de selección.*
 - *d) Independencia y discrecionalidad técnica en la actuación de los órganos de selección.*
 - *e) Adecuación entre el contenido de los procesos selectivos y las funciones o tareas a desarrollar.*
 - *f) Agilidad, sin perjuicio de la objetividad, en los procesos de selección.*
- Azkenik, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duenak, bere 33.1 artikuluan, aldi baterako pertsonala hautatzeko printzipio berdinak xedatzen ditu.

Musika eta Dantza Eskoletako aldi baterako Irakasleak hautatzeko Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak proposatutako oinarriek arautzen duten jardunbideak, goian aipaturiko printzipioak betetzen ditu, idazkari honen iritziz.

Bestaldetik, proposatutako hitzarmenaren bitartez, udal honi dagozkion ahalmen batzuk jartzen dira Donostiako udaleko Erakunde Autonomoaren esku, hain zuzen, ondoko hauek: Aldi baterako irakasleak hautatzeko prozedura egikaritzeko jarduketa materialak eta tekniko guztiak, proposaturiko hitzarmenean eta oinarrietan jasotakoaren arabera. Kasu guztietan, Tolosako udalak kontserbatuko ditu dagozkion eskumenak arlo honetan.

BIGARREN.- Kudeaketa-Gomendioaren bitartez, dagokion administrazio publikoak edo zuzenbide publikoko entitate batek, bere eskumenekoa den jarduera materiala edo teknikoa utz dezake administrazio bereko edota beste bateko beste organo edo zuzenbide publikoko organo baten esku, jarduera horiek haien eskumenen barruan badaude, efikaziari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duenak, bere 11.a artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kasu honetan proposatzen den kudeaketa-gomendioak bi helburu horiek betetzen ditu. Alde batetik, Musika eta Dantza Eskola guztien aldi baterako irakasleen beharrak asetzeko jardunbide bateratuak gauzatzea askoz eraginkorragoa da, bestelako kasuan Musika Eskola bakoitzeko administrazioak bere jardunbide propioa garatu beharko lukeelako. Bestetik, udal administrazioetan ez dago nahiko pertsonal aditua,



eta, egongo balitz ere, dauden baliabide pertsonalekin ezinezkoa izango litzateke beharrezkoak diren hautatze-prozesuak aurrera eramatea.

Arrazoi hauek kontuan harturik, proposatzen den kudeaketa-gomendioak onurak besterik ez dakartzkio administrazio honi.

Horretaz gain, kudeaketa-gomendioak arautzen dituen gainontzeko xedapenak ondoko hauek dira, beti ere aipatu den Legearen 11. artikulua barruan:

Sektore publikoko kontratuen legerian araututako kontratuen berezko prestazioak ez dira izango kudeaketa-gomendioen xede. Hori gertatzen bada, horien izaerak eta araubide juridikoak legeria horretan aurreikusita dagoena bete beharko du.

2. Kudeaketa-gomendioak ez dakar ez eskumenaren titulartasuna ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; horrelakoetan, kudeatzeko gomendia ematen duen organoaren edo entitatearen ardura izango da gomendioan emandako jarduera material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.

Nolanahi ere, gomendia jasotzen duen entitate edo organoa izango da kudeaketa-gomendia egikaritu bitartean eskuratzen dituen datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta datu pertsonalen babeserako araudian xedatuta dagoena aplikatuko zaio.

3. Kudeaketa-gomendioak formalizatzeko, erregela hauek bete beharko dira:

a) Kudeaketa-gomendia administrazio berekoak diren administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko entitateen artean egiten bada, administrazio horren arauetan ezarrita dagoen bezala formalizatuko da; halako araurik ez badago, berriz, esku hartzen duten zuzenbide publikoko organo edo entitateek espresuki hartutako akordioari begiratuko zaio.

Nolanahi ere, kudeaketa-gomendia formalizatzeko tresna eta ebazpena, efikazak izan daitezen, Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean edo probintziakoan argitaratu beharko dira, gomendia egiten duen organoa zein administratziotakoa den kontuan hartuta.

Administrazio bakoitzak arautu ditzake akordio horien baliozkotasunerako betekizunak. Akordio horietan, gutxienez honako hauek jasoko dira espresuki: zein den jarduera, indarraldia eta kudeaketaren izaera eta irismena.

b) Kudeaketa-gomendia administrazio desberdinetako organo eta zuzenbide publikoko entitateen artean egiten denean, dagokion hitzarmena izenpetuz



TOLOSAKO
UDALA

formalizatuko da; Aipatutako hitzarmena Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean edo probintziakoan argitaratuko da, gomendioa egiten duen organoa zein administraziotakoa den kontuan hartuta.

Kasu honetan, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko tresna, hitzarmen bat izango da. Hala ere, aipatu den 40/2015 Legearen 48.9 artikuluan xedatutakoaren arabera, lankidetzeta-hitzarmenak arautzen dituen xedapenak ez dira aplikagarriak izango kudeaketa-gomendioen kasuan.

Hitzarmena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, transkribatu den 11.3.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARREN.- Aipatutakoez gain, hitzarmen honi ondoko arau hauetan xedaturikoa aplikatuko zaio:

- 289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Musika Eskola direlako arautu gabeko berariazko musika irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarritzko arauak
- 252/2007 Dekretua, abenduaren 26koa, dantza ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituenak
- 421/1992 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Musika eta Dantza Eskolen sortzea eta funtzionamendua zuzenduko duten oinarritzko arauak ezartzen dituenak.

LAUGARREN.- Kudeaketa-agindua onartzeko organo eskuduna Udalbatza Plenoa da, **korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutua behar duena**, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.q) eta 47.h) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Beraz, Idazkari honek ondoko akordio hauek onartzea proposatzen dio Pertsonal eta Antolakuntzako Batzordeari:

LEHENA.- Tolosako udala eta Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin udal honetako Musika Eskolako Zuzendaritzak proposaturiko hitzarmena onartzea. Hitzarmenaren xedea ondokoa da: Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolari **gomendatzea irakasleen lanpoltsa bateratuak sortzeko hautaketa-jardunbidea gara dezala**, Tolosako udaleko Musika Eskolak izan ditzakeen aldi baterako pertsonalaren beharrei erantzuteko, irizpen honen Eranskinean jasotakoaren arabera.

BIGARRENA.- Donostiako udalaren Musika eta Dantza Eskolak aurkezturiko Oinarriak onartzea, espedientean jasotakoaren arabera.



TOLOSAKO
UDALA

HIRUGARRENA.- Kudeaketa-gomendioa jasotzen duen hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako Udaleko web orrian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek Tolosako Musika Eskolako zuzendaritzari eta Donostiako udalaren Musika eta Dantza Eskolari jakinaraztea.

ERANSKINA HITZARMENAREN KLAUSULAK

LEHENENGOA.- XEDEA

Hitzarmen honen bitartez, EGOITZA ESKOLAK ESKOLA SUSTATZAILEARI gomendatzen dio Musika eta Dantza Ikastetxeetarako lan poltsak sortzeko hautaketa prozedura egikaritzeko behar beste jarduera material, jarduera tekniko edo zerbitzuzko jarduera egiteko.

BIGARRENA.- DEIALDIETAKO ESPEZIALITATEEN DESKRIBAPENA

Hautaketa prozedura bateratuak deialdi honen 1. eranskinean zehaztutako espezialitateak eskainiko ditu, besteak beste.

HIRUGARRENA.- KUDEAKETA GOMENDIOAREN IRISMENA

ESKOLA SUSTATZAILEAK hautaketa prozedura egikaritzeko jarduketa material edo tekniko guztiak egingo ditu, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko ditu deialdien oinarri bateratu espezifikoak, honako hauek jasoko dituztenak:

1. Parte hartzeko baldintzak izango dira 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, urriaren 30ekoan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenean, ezarritakoak.
2. Horrez gain, irakasleen kasuan, honako legezko testuetan jasotako xedapenak aplikatuko dira, Musika eta Dantza Ikastetxearen izaeraren arabera:
 - a. 289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Musika Eskola direlako arautu gabeko berariazko musika irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituena.
 - b. 229/2007 Dekretua, abenduaren 11koa, dantza ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituena.
 - c. 252/2007 Dekretua, abenduaren 26koa, dantza ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituena.
3. Balioespen bat egingo da, TITULARTASUN PUBLIKOKO ESKOLA bakoitzari aukera emango diona bere lanpostuen zerrendako baldintzak zehazteko. Zehazki, espezialitate bakoitzean lan poltsan sartutako pertsona guztien ezaugarri hauek adieraziko dira:
 - a. Hautagaiak egiaztatutako euskararen profil linguistikoa.



- b. *Poltsetara sartzeko titulazioa / gaikuntza/egiaztapena, hauek izan daitezke:*
- i. *Generikoa, C1 sailkapen taldeari dagokiona.*
 - ii. *Generikoa, A2 sailkapen taldeari dagokiona.*
 - iii. *Generikoa, A1 sailkapen taldeari dagokiona.*
 - iv. *Titulazioa/gaikuntza profesionala:*
 1. *Musika: 569/1992 ED, 1577/2006 ED.*
 2. *Dantza: 389/1992 ED eta 85/2007 ED.*
 3. *Eusko Jaurlaritzaren gaikuntza, 289/1992 Dekretuan oinarritutakoa.*
 - v. *Instrumentu Irakaslearen titulua, 2618/1966 Dekretuaren arabera, eta goi mailako irakaskuntzarako baliokideak.*
 - vi. *Irakaskuntza Artistikoetako goi mailako titulazioa.*
4. *Eskabideak ESKOLA SUSTATZAILEAK edo TITULARTASUN PUBLIKOKO ESKOLEN edozein erregistrok ezarritako prozedura elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dira, ESKOLA SUSTATZAILEAK prozesurako estandarizatutako formularioari jarraituz.*
- a. ***Eskabideak, idazkiak eta dokumentuak aurkeztea***
Hautagaiak onarpen eskabideak eta hautaketa prozesuarekin lotutako gainerako dokumentazioa aurkeztu ahal izango dute, baita hautaketa prozesuko izapideetako egintzen eta behin betiko egintzen aurkako erreklamazioen eta errekursoen idazkiak ere, ESKOLA SUSTATZAILEAREN erregistroan, edo edozein entitate sinatzaile laguntzailearen erregistroan. Horrez gain, 39/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, aurreikusitako edozein modutan ere aurkeztu ahal izango dituzte.
- b. ***Aurkeztearen ondoreak***
Aurreko paragrafoan aipatutako idazkiak eta dokumentuak erregistroetan aurkezteko data baliozkoa izango da guztiz ESKOLA SUSTATZAILEAREN aurrean interesdunek epeak betetzeko ondoretarako.
- c. ***Erregistratzeko eta bidaltzeko izapidea***
Hitzarmen hau sinatzen duten administrazioek 1. atalean aipatutako idazkiak onartuko dituzte, eta modu egokian izapidetuko dituzte, 39/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, xedatutakoari jarraituz. Behin erregistratu direnean, dokumentuak UEAr berehala bidaliko zaizkio, betiere hura jaso eta hurrengo egun baliodunaren barruan. Egun hori larunbata bada, hurrengo egun baliodunean bidaliko da. Dokumentua bidaliko da ESKOLA SUSTATZAILEAK adierazitako bitartekoen eta formatuen bidez; horien helburuak izango dira, batetik, ahal bezain azkar egitea, eta, bestetik, indarrean dagoen legediak eskatzen dituen bermeak eta baldintzak bermatzea.



Administrazio sinatzaileek konpromisoa hartzen dute interesdunei lan poltsa osatzeko deialdiari buruzko informazioa emateko eta hautaketa prozesuarekin lotutako izapideak errazteko. Informazio horretan sartzen da 2016/679 Erregelamenduak, 2016ko apirilaren 27koak, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarenak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak, bere 13. artikuluan xedatzen duena (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra —DBEO—).

Zentzu horretan, ESKOLA SUSTATZAILEAK administrazio laguntzaileen erregistroen eskura jarriko ditu eskaerak aurkezteko eskabide orri normalizatuak.

d. Baztertzea

Idazkiak aurkezteari dagokionez, entitate sinatzaileen eta ESKOLA SUSTATZAILEAREN arteko elkarlana indarrean egongo da hautaketa prozesua ebatzi arte eta lan poltsa behin betiko onartu arte.

Hitzarmen honen aplikazio esparrutik kanpo gelditzen da lan poltsa osatzen duten pertsonen administrazio laguntzaileetako edozeinek zuzendutako lan eskaintzekin lotutako eskaerak, idazkiak edo dokumentazioak aurkeztea; horiek dagokion entitatearen egoitzan aurkeztu beharko dira.

- 5. Bi entitateek, poltsak kudeatzeko lankidetzaren markoan, tratamenduaren erantzule izango dira eta koordinatzeko neurriak artikulatu beharko dituzte, poltsa horiek guztiz operatibo egon daitezen; hala, beren jarduketek beti egokitu beharko dute, bai DBEOk ezarritakora, bai datuen babesaren alorrean indarrean dagoen beste edozein araudi aplikagarria.*
- 6. Poltsak egin eta gero, ESKOLA SUSTATZAILEAK TITULARITATE PUBLIKOKO ESKOLARI lagako dizkio poltsa horiek, eta azken horrek konpromisoa hartuko du datu horiek Hitzarmen honetan jasotako helburuarekin erabiltzeko, eta ezin izango dizkie hirugarren batzuei laga.*
- 7. Poltsak kudeatzeko koordinazio-neurriak direla-eta, interesdunen batek, datuen babesaren alorrean, eskubideren bat erabiltzen badu TITULARITATE PUBLIKOKO ESKOLAREN aurrean, eskola horrek ESKOLA SUSTATZAILEARI jakinarazi beharko dio, poltsak behar bezala eguneratzeko, Hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak araberaren arabera.*
- 8. Poltsetako datu pertsonalak tratatu behar dira dauden arriskueta egokitutako segurtasun-neurriak erabilia, bete behar dira DBEOren 32. artikuluko neurriak, eta prozedurak ezarri behar dira segurtasun-arrakalen berri emateko, hala dagokionean, kontrol-agintaritzari eta interesdunei. Datuen tratamendua eta haiek kontserbatzeko legezko epeak amaitutakoan, datu horiek modu seguruan suntsitu behar dira.*
- 9. ESKOLA SUSTATZAILEAK balioespen batzorde bat izendatuko du espezialitate bakoitzeko. Kontuan hartuko da:*



- a. Batzordeko kideak baztertu egin ahal izango dira 40/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoaren, 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako inguruabarretan badaude edo hautagaiak hautaprobetarako prestatu badira deialdia argitaratu aurreko 5 urteetan.
 - b. Gaitasun, konpetentzia eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua egongo da batzordean, 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoaren, 20.6. artikuluari jarraituz.
 - c. Halaber, parte hartzaileak izendatzean, kide guztiak elebidunak izan daitezzen zainduko da.
10. Balioespen batzordeak eratzeko, TITULARTASUN PUBLIKOKO ESKOLAKO langileak ere kontuan hartu ahal izango dira. Horretarako, TITULARTASUN PUBLIKOKO ESKOLEK konpromisoa hartzen dute ESKOLA SUSTATZAILEAREN eskura jartzeko gutxienez beren langileen % 20, haren plantillaren parte izan daitezzen, kasu bakoitzean beren langileei dagozkien dietak bere gain hartuta. Langile horiek hitzarmen honen 2. ERANSKINEAN sartuko dira. Hautaketa sistemak bi fase izango ditu.
11. Edozein arrazoik dela eta balioespen-batzordeetarako ezin bada henar den pertsonalik izendatu, kanpoko espezialistako kontratazio gastuak ordaindu beharko dira. Gastu hauek egindako kontratazio guztietatik aurrera likidatuko dira. hala guztiz ere, TITULARTASUN PUBLIKOKO ESKOLA bakoitzak ez du 600 euro baino gehiago ordaindu beharko gastu hauek aurre egiteko.
12. Bata, borondatezko oposizioko fasea, gehienez ere 20 puntuz balioetsiko dena; bestea, lehiaketakoa, gehienez ere 30 puntuz balioetsiko dena.
13. Euskara ezagutzea baldintza izan daiteke lanpostu bat lortzeko, dagokion entitateak onartutako postuaren eskakizunen arabera. Deialdiaren ondorenetarako, kontuan hartuko da 297/2010 Dekretuan, azaroaren 9koan, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denean, xedatutakoa. (EHAA, 219 zk. 2010/11/15).
14. Hautaketa prozesuari buruzko argitalpenak ESKOLA SUSTATZAILEAREN iragarki taulan eta webgunean azalduko dira, eta TITULARTASUN PUBLIKOKO ESKOLETARA bidaliko dira. ESKOLA SUSTATZAILEAREN iragarki taulan argitaratzeko data izango da erabakigarria epeak zenbatzeko.
15. Lan poltsak sortzeko prozesua amaitutakoan, zerrendak eguneratzeko prozedura hasiko da. Horretarako, ESKOLA SUSTATZAILEAK irizpide hauei jarraituko die:
- a. **Titulazioak eta euskararen eskakizunak eguneratzea dagoeneko lan poltsan daudenentzat**
Behin prozesua amaituta, zerrenden parte direnek beren profil profesionala osatu ahal izango dute beranduago lortutako egiaztapenekin (euskararen profila eta/edo titulazioa). Dokumentazio horrek zerrendak eguneratuko ditu, eta ez du aldatuko ezarritako hurrenkera. Dena den,



kontuan hartuko da lanpostuaren eskakizunak betetzen ote diren egiaztatzean.

b. Zerrendetan ez dauden hautagaiak gehitzea

Interesdunek beren eskaera eta dokumentazioa aurkezteko irekiera iraunkorra izango da, eta ESKOLA SUSTATZAILEAREN Ebazpenaren bitartez jakinaraziko da zein den eskaera horiek balioesteko aurkezteko azken eguna. Ezarritako epearen barruan aurkeztutako curriculumak lan poltsa arautzen duten oinarrietako irizpideei jarraituz, eta lan poltsara deialdi horren bidez sartzen direnak dagozkien zerrendetan sartuko dira behin hautaketa prozesua amaitutakoan, lan poltsa osatzen dutenen atzean, zero punturekin eta hautaketa prozesuan lortutako emaitzen hurrenkeran.

Urtero ofizioz ezarriko dira urteko lehen hiruhilekoan deitutako espezialitate guztiak. Salbuespen modura, eta espezialitatearen bateko lan eskaintzarako hautagairik ez badago, ESKOLA SUSTATZAILEAK espezialitate hori ixtea erabaki dezake, ohiko deialdiaren modu berean argitaratutako Ebazpen baten bitartez.

ERANSKINA / ANEXO 1

LEHENA. ESPEZIALITATEAK

- **TITULARTASUN PUBLIKOKO ESKOLAK ESKOLA SUSTATZAILEARI eskatzen dio honako espezialitate hauen deialdia egiteko:**
- **INSTRUMENTU POLIFONIKOAK:**
- Akordeoia, Pianoa, Perkusioa
- **HARI-INSTRUMENTUAK**
- Biolina, Biola, Biolontxelo, Kontrabaxua
- **EUSKAL INSTRUMENTUAK**
- Txistua, Dultzaina
- **INSTRUMENTU MODERNOAK**
- Baxu elektrikoa
- **METALEZKO INSTRUMENTUAK**
- Tronpa, Tronpeta, Tronboia, Bonbardinoa, Tuba
- **EGURREZKO INSTRUMENTUAK**
- Flauta, Oboea, Klarineta, Saxofoia
- **BESTE IKASGAIK**
- Abesbatza, Kantua, Musika eta mugimendua, Musikaren lengoia, Armonia, Talde instrumentalak

BIGARRENA. EPAIMAHAIK

TITULARTASUN PUBLIKOKO ESKOLAKO berezko langileak, ESKOLA SUSTATZAILEAREN BALIOESPEN BATZORDEEN parte izateko.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** kudeaketa gomendioaren hitzarmena, Donostiako Musika eta dantza eskolaren eta Tolosako Udalaren artekoa, Lan poltsak modu bateratuan kudeatzekoa, hauek musika eta dantza ikastetxeetan erabili daitezzen.

7. Musika Eskolako irakasleen zuzendaritzako eta Idazkaritzako ordu lektiboen gehikuntza onartzea. 7. Aprobación del incremento de horas lectivas de profesorado en los puestos de Dirección y Secretaria de la Escuela de Música.

Parte-hartzeak:

- ... Nuria Carbonell Miranda (kultur zinegotzia): *“Tolosako Eduardo Mokoroa Musika Eskolak azkeneko hogeitun urteetan izan duen eboluzioa nabarmentzekoa izan da. Zorionez, horrela izan da eta eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dira kurtsoan zehar. Administrari lanak gero eta gehiagokoak dira eta, nola ez, Musika Eskolaren kudeaketak eskatzen dituen beharrak gero eta handiagoak dira. Azkenengo hogeitun urte esaten dugu orduan zuzendaritza lanak egiteko ezarritako zeuden ordu kopurua gaur egun eskas gelditu dira. Horregatik eta lan guzti hauek ondo egiteko eta aktibitate maila mantentzeko proposamen hau ekartzen dugu hona. Hau da, Musika Eskolako Zuzendariak eta Idazkariak karguak dedikazio ordu gehiago izan ditzaten dauzkaten ardurei ondo erantzuteko.”*

GIZA BALIABIDEAK ETA UDAL ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN 2018KO AZAROAREN 27KO IRIZPENA.

AURREKARIAK

Lehena.- Musika Eskolako zuzendaritzatik ordu lektiboen murrizketa eskaera egin zuten iazko urtean, hain zuzen ere Zuzendariak 4 ordu lektibo gehiago astean murrizteko eta Idazkaritzatik 2 ordu lektibo gehiago astean murrizteko. Eskaera honen



TOLOSAKO
UDALA

zergatia lan pilaketan eta egun duen beharretan oinarritzen da alde batetik eta bestetik, egun dauden ikasle taldeak egun eta ordu berdinean klaseak dituztela eta horren ondorioz, ezin dutela zuzendaritza karguak ematen dituzten irakasleak solfeoko klase hauek eman.

Bigarrenik.- Egoera honi irtenbide bat emateko hainbat aukera ezberdin proposatu dira, baina besteen artean, egokiena udal hitzarmena ezarritako lan baldintzen aldaketa egitea proposatzen da txosten honetan.

Honetarako gaiaren azterketa egingo da

OINARRI JURIDIKOA

Lehenak.- Tolosako udaleko lan hitzarmena erregulatzen dituen lan baldintzen akordioak honakoa adierazten du Musika Eskolako zuzendaritza karguen inguruan:

1. "15. artikulua.- Udal Kontserbatorioetako eta Musika Eskoletako irakasleen asteko lanaldia
3. Zuzendaritza Karguren bat daukan irakasleak asteko lanaldiaren banaketa hau izango du:
 - a) **Zuzendaria:** 33 ordu zentroan bertan egoteko eta **8 irakastordu gutxiago.**
 - b) Saileko Buru edo Saileko Arduraduna: 33 ordu zentroan bertan egoteko eta 2 irakastordu gutxiago.
 - c) Beste Zuzendaritza Kargu Batzuk, esaterako, Ikasketa Burua, **Idazkaria** eta Zuzendariordea: 33 ordu zentroan bertan egoteko, **4 irakastordu gutxiago.**"

Honela, momentu honetan eskatzen ari diren ordu gehikuntza hauxe litzateke:

- Zuzendari kargua betetzeagatik, 4 irakastordu gehiago astean, hau da, guztira 12 ordu astean.
- Idazkari akademiko kargua betetzeagatik, 2 irakastordu gehiago astean, hau da, guztira 6 ordu astean.

Bigarrenak.- Aldaketa hau bideratzeko udal hitzarmenak ezarritako baldintzak ez direnez betetzen, aipatu hitzarmena aldatzeko prozedura hasi beharko litzateke eta lan baldintzen hobekuntza bat bezala izapidetu.

Hirugarrenak.- Aldaketa hau onartuko balitz, urtean 6 irakastordu emateko irakasleren bat kontratatu beharko litzateke, honek urtean 11.026,08 euroko kostua izango lukeelarik.



TOLOSAKO
UDALA

ONARTZEKO PROZEDURA

Hauexek lirateke eman beharreko pausoak udaleko hitzarmena aldatu ahal izateko:

- Batetik, langileen ordezkariekin negoziatu beharko da aipatu lan baldintzen aldaketa:

5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarenak, 37.1.m) artikuluan ezarritakoari jarraiki, negoziatzeko gai izango dira, Herri Administrazioetako bakoitzak dituen eskumenei lotuta, bakoitzak bere eremuan eta kasuan-kasuan legez dagokion irismena izanik, udal enplegatu publikoei eragiten dieten lan baldintzen aspektuei buruz.

- Bestetik, Udaleko Osoko Bilkuraren onespena beharko du udal hitzarmenaren aldaketa honek, apirilaren 2ko 7/1985 Legarean 22.2 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza baitu gai hau onartzeko eta aurreti Pertsonaleko Batzorde Informatiboak diktaminatu behar du dagokion irizpena.

Hau guztia kontuan hartuta, hauxe da egiten den

IRIZPENA

Lehena.- Tolosako udaleko lan hitzarmena erregulatzen dituen lan baldintzen akordioa aldatzea Musika Eskolako zuzendaritza karguen inguruan eta bere 15 artikulua erredakzio berria onartzea:

2. "15. artikulua.- Udal Kontserbatorioetako eta Musika Eskoletako irakasleen asteko lanaldia

3. Zuzendaritza Karguren bat daukan irakasleak asteko lanaldiaren banaketa hau izango du:

a) **Zuzendaria:** 33 ordu zentroan bertan egoteko eta **12 irakastordu gutxiago.**

b) Saileko Buru edo Saileko Arduraduna: 33 ordu zentroan bertan egoteko eta 2 irakastordu gutxiago.

c) Beste Zuzendaritza Kargu Batzuk, esaterako, Ikasketa Burua, **Idazkaria** eta Zuzendariordea: 33 ordu zentroan bertan egoteko, **6 irakastordu gutxiago.**"

Bigarrena.- Akordioa Musika Eskolako zuzendariari eta Komiteari jakinaraztea.



TOLOSAKO
UDALA

Hirugarrena.- Aldaketa honen ondorioz sortutako gastua onartzea, ikasturte osoan zehar astean 6 irakastorduko klaseak eman ahal izateko, hain zuzen ere, 11.026,08 eurokoa.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako udaleko lan hitzarmena erregulatzen dituen lan baldintzen akordioaren aldaketa, Musika Eskolako zuzendaritza karguen inguruan eta bere 15. artikulua erredakzio berria.

8. Tolosako udaleko herritarrentzako arreta zerbitzua (UDATE) arautzen duen ordenantza hasieraz onartzea. **8. Aprobación inicial de la ordenanza reguladora del Servicio de Atención a la Ciudadanía (UDATE).**

Parte-hartzeak:

... Alkatea. *“Diktamenean jasotako aurrekariak azaldu ondoren ondoko haua gaineratu du: azken finean helburu nagusia da udalak herritarrei zerbitzu hobeto bat ematea eta udal langileek ere modu efizienteago bat, lasaiago bat eta profesionalizatuko batean ematea arreta hori.”*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *Oso ondo azaldu du zerbitzuaren garrantzia baina azpimarratu nahi dut udalak herritarren zerbitzura egon behar badu herritarrei tramiteak, udalarekin dituen harremanak erraztu egin behar dizkio. Baten bati irudituko zaio hau, lehen hirugarren pisua eta orain kale mailan geldituko naiz. Baina uste dut ordenantza aztertu eta ondo azterturik izpiritua askoz sakonagoa dela. Harremanak egiteko bideak erraztuko dira herritarren eta udalaren artean. Jakina da honen atzean lan handia dagoela eta jende batek hemen ordu asko sartu behar izan dituela hau dena antolatzen, eskertzekoa da. Gainera, kontutan hartzen badugu administrazioan ohiturak aldatzea zenbat kostatzen den, Ziur asko sortuko dira lehenengo etapa hauetan, bai ordenantza honen bertan eta bai jardueran kontraesanak eta hobetu beharrekoak. Animatu herritarrak nonbaiten edo zerbaiten iruditzen bazaie zer hobetua dagoela beraien ikuspegitik esatea eta egitea alegazioaren bat.*

... Alkatea: *“Gaur Udateko ordenantza onartuko dugu hasiera batean eta gero ondoren*



TOLOSAKO
UDALA

etorriko da UDATEko sailak udaleko beste guzti sailekin lotu beharreko hitzarmenak. Iñakik aipatu duen bezala, hemen atzean hilabete batzuk atzea jota lan handi dago eta langile guztien inplikazioa. Baita ere egia esanda izanda aukera bat Udalak dituen izapide guztiei errepassoa egiteko. Hori inportantea eta honen ekarriko dugu berrantolaketa bat, bai baliabide materialak jarri beharko direlako Udatek eskatzen dituenak, zerbitzu berak eskatzen dituenak, eta baita ere giza baliabideez hornitu beharko da Enplegu Planaren bidez. Lehen ahaztu egin zait estea ordenantza honetan ez dago sartuta baina sartu nahiko genuke zeinu hizkuntzetan zerbitzua emateko aukera, elkararekin ari gari lantzen : Hori alegazio epe horretan txertatuko dugu dokumentuan."

GIZA BALIABIDEAK ETA UDAL ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN 2018KO AZAROAREN 27KO IRIZPENA.

AURREKARIAK

Azken hilabete hauetan, Tolosako udaleko Departamentu guztietan jardunbide bat garatu da, sail bakoitzak ematen dituen zerbitzuak identifikatu, deskribatu eta zerrendatzeko. Era honetan, *Tolosako Udaleko Izapideen Eskuliburua* jasotzen duen dokumentua -paperezkoa zein elektronikoa- amaitzear dago, eta horrekin loturiko ZERBIKAT programa informatikoa tresna eraginkorrak izango dira udal honek herritarrei ematen dizkien zerbitzuei buruzko informazio zehatza eskuratzeko eta kudeatzeko.

Halaber, UDATE zerbitzua berrantolatu behar da, herritarren erreferentziazko informazio-zerbitzu orokorra bihurtuz. Era horretan, herritarrei eskaini ahalko zaie eskuhartze tekniko espezializatua behar ez dituzten zerbitzu gehienak, era orokorrean, baliabide ezberdinak erabiliz.

Izan ere, nabarmena da herritarrek ere gero eta eskakizun handiagoak dituztela. Horri, gastu publikoa eraginkortasunez kudeatzeko beharra gehitzen badiogu, ideia berri bat sartzen da Administrazioaren zerbitzuan: kalitatea. Izan ere, pertsonen harrera egin eta haien eskaerak berehala konpontzen badira, erakunde guztiaren kostuak murrizten dira eta, aldi berean, hobetu egiten da herritarrek Administrazioetik jasotzen duten irudia.

Helburu hori lortu ahal izateko, eta bidenabar, bere xedea komunitateari eta komunitateak etengabe izaten duen bilakaerari egokitu ahal izateko, Tolosako Udalak, Zerbitzu Publikoko erakunde den aldetik, konpromiso bat hartu du, tokiko berrikuntza prozesua jarraitzeko.

Hortaz, beharrezkoa den hausnarketa tartearen ostean, eta dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita dauden hainbat eredu erreferentziazat harturik, Herritarrentzako Arreta Zerbitzu integrala sortzea proposatu da.



TOLOSAKO
UDALA

Horrela, UDATE zerbitzua Tolosako Udalak herritarrei eskaintzen dien erreferentziako zerbitzua da. Bertan, udal-zerbitzu gehienak era integralean eskainiko dira —betiere esku-hartze tekniko espezializaturik behar ez bada (informazioa, tramitazioa eta kudeaketa)—, aurrez aurre, telefonoz, telematikoki, posta elektronikoz nahiz sare sozialetan, kasuz-kasu. Bertako bulegoak eta zerbitzuak sortu eta diseinatu beharko dira zerbitzu izateko joera eta bokazioa argia dutela, herritarrei Tolosako Udalarekiko sarbidea, komunikazioa eta harremana era erosoan emateko moduko zerbitzua izan dadin.

Ondorioz, ondokoak dira UDATE-Tolosako udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren ezaugarriak:

1. Tolosako Udalaren zerbitzua da. Hartara, ez die herritarren eskaerei erantzungo soilik, ahalik eta arreta zabalena ematen saiatuko da baizik.
2. Dinamikoa izan beharko da, aldakorra, une bakoitzeko eskakizunetara egokituko dena.
3. Zerbitzu modura eratuta egongo da udal egituran, eta bere zeregina herritarrei arreta integrala ematea izango da.
4. Gehien eskatzen diren ohiko tramiteek osatuko dute bere jardueren karta.

Ondorengoak dira, kudeaketa eta informazio funtzioak betetzen dituen horrelako zerbitzu bat (UDATE) abian jartzeak dakartzan abantailak:

Herritarrentzat:

- a) Eskaera pertsonalak bideratzea.
- b) Herritarrei tratu pertsonala eta indibidualizatua ematea.
- c) Izaera orokorreko eskaerak, hau da, normaliza daitezkeenak, betetzea.
- d) Eskaerei arinago eta azkarrago erantzutea.
- e) Informazio zuzena eta benetakoa ematea, eta informazioa kanalizatzea, herritarrek eskaerak zentralizatuta eduki ditzaten.
- f) Egiten diren kontsultak identifikatzea eta iragaztea. Horrela, kontsulta espezializatuak bakarrik bidaliko ditu Zerbitzu eskudunera, aurretik ordua hartuta.
- g) Azkenik, Udalak herritarren aurrean duen irudia eguneratzea.

Udalarentzat:

- a) Baliabideak arrazionalizatzea, antolakuntza horizontalak sortzen dituen ekonomien ondorioz.



TOLOSAKO
UDALA

- b) Udalaren irudia izatea herritarren eskaera konpontzeko ahalegin guztia egiten duen zerbitzu publikoarena
- c) Ahalbidetzea pertsonetik harreman zuzen eta arduratsua, zerbitzu publikoko kontzeptuaren baitan, etengabeko hobekuntzarako aukera izateko
- d) Laneko barne-sarea indartzea.
- e) Herritarrei zerbitzua eskaintzean sentitzen den hasebetetzean sakontzea.

Udaleko langileentzat:

- a) Prozesuak homogeneizatzea
- b) Kudeaketan denbora irabaztea
- c) Protokoloak hasieratik amaierara argitzea
- d) Laneko barne-sarea indartzea
- e) Zerbitzuak herritarrei eragiten dien asebetetzean sakontzea
- f) Diziplina anitzeko taldea egituratzea.

OINARRI JURIDIKOA

1.- Udalaren eskumenak

Indarrean dagoen Konstituzioaren 103. Artikuluak jasotzen duenaren arabera, Herri Administrazioak objektibotasunez erantzun behar die interes orokorrei, eta efikaziaren printzipioei jarraiki jardun behar du, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginik. Era berean, Herri Administrazioen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikulua, pertsonak, herri administrazioekiko harremanetan dituzten eskubideak zehazten ditu. Horren ondorioz, Administrazioak beharrezkoak diren mekanismoak egituratu behar ditu, eskubide horiek betearazteko.

Kasu honetan, kontuan hartu behar da 7/1.985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 4. artikuluan xedatzen duena, alegia, udalerritari dagozkion bere burua antolatzeke eta erregelamenduak egiteko ahalen aitortzeak. Ahalmen hauen arabera, Tolosako udalak eskumena dauka bere zerbitzuak antolatzeke, beti ere aurreko atalean adierazitako printzipioak kontuan hartuta.

2.- Ordenantzaren izapidetzea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, Ordenantza honen izapidetzeak ondoko pausoak izango ditu:

- 1) Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.



TOLOSAKO
UDALA

- 2) Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezzen.
- 3) Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- 4) Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.
- 5) Ordenantza behin betikoz onartu ondoren, bere testu osoa argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako web orrian, eta Tolosako udaleko Gardentasunaren Atarian.

Ordenantzaren xedea udal zerbitzuen barne antolakuntzarekin lotuta dagoela kontuan harturik, ez litzateke beharrezkoa izango 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duenak, bere 133. artikuluan xedatzen duen aurretiazko parte hartze prozesua gauzatzea, artikulua honen 4. atalean xedaturikoaren arabera: *Artikulu honetan aurreikusitako kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin gabe utz daitezke Estatuaren Administrazio Orokorren, administrazio autonomikoaren, toki-administrazioaren edo haien mendeko edo haiei lotutako antolakundeen aurrekontuei edo antolaketari buruzko arauetanarrazoian daudenean.*

Beraz, Tolosako udaleko Giza Baliabide eta Udal Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, ondoko Irizpena onartzea proposatu du:

IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (*UDATE*) arautzen duen Ordenantza hasieraz onartzea, irizpen honen eranskinean jasotakoaren arabera.

BIGARRENA.- Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta udaleko web orrian argitaratzea.



TOLOSAKO
UDALA

ERANSKINA

HERRITARRENTZAKO ARRETA ZERBITZUA (UDATE) ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I TITULUA: IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

1. artikulua. Herritarrentzako Arreta Zerbitzua.

Tolosako Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (UDATE) Tolosako Udalaren arreta zerbitzua (*aurrerantzean UDATE*) izango da herritarrentzako erreferentziako zerbitzua, era integralean eskainiko dizkiena teknikarien esku-hartze espezializatua behar ez duten zerbitzu gehienak (*informazioa, tramitazioa eta kudeaketa*), aurrez aurre, telefonoz, telematikoki, posta elektronikoz eta sare sozialen bidez. UDATE zerbitzuari antolamendu eta bitartekoak eman zaizkio herritarrek Udalari eta bere erakunde autonomoei bideratzen dizkieten eskaera gehienei erantzuteko, eta diseinatu da informazioa, komunikazioa eta herritarrek Tolosako Udalarekin duten harremana era erosoan eman dadin laguntzeko helburuarekin.

Halaber, UDATE zerbitzuak Tolosako udaleko Erregistro Orokorrekin loturiko funtzioak beteko ditu, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoetako Prozedura Administrazio Erkidea arautzen duenak xedatutakoaren arabera.

2. artikulua. Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren zereginak.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren jarduerak ondorengo funtzioen barruan sartzen dira:

A. Udalari eta udalerritari buruzko informazioa emateko funtzioa, halaber udalak ematen dituen bestelako zerbitzuei buruzko informazioa ematea (etxebizitza, diru laguntzak, etab.).

B. Bere izapide eta zerbitzuak kudeatzea, bai eta gainontzeko sailekin sinatutako lankidetzako barne-hitzarmenen arabera dagozkion bestelakoak ere.

C. Tolosako udalak ematen dizkion bestelako zereginak.

3. artikulua. Herritarren eskubideak

Herritarrek Udalarekin dituzten harremanetan dituzten eskubideak:



TOLOSAKO
UDALA

- a) *Udalarekin komunikatzea Administrazioaren sarbide-puntu nagusi elektronikoaren bidez*
- b) *Udalarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko laguntza jasotzea*
- c) *Erabiltzea Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak, euskara lehenetsiz, Tolosako herritarren hizkuntza nagusia den heinean.*
- d) *Informazio publiko, artxibo eta erregistroetarako sarbidea izatea, Estatuko eta autonomia-erkidegoko gardentasunaren arloko legerian aurreikusitakoaren arabera, baita ere, baldin badago, tokiko araubidearen arabera*
- e) *Agintari eta langile publikoengandik errespetuzko eta adeitasuneko tratua jasotzea; lagundu beharko diete beren eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko*
- f) *Udalaren, agintarien eta langileen erantzukizunak eskatzea, legez hala dagokionean*
- g) *39/2015 Legean aurreikusten diren Identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoak eskuratu eta erabiltzea*
- h) *Datu pertsonak babestea; bereziki Tolosako Udalaren fitxategi, sistema eta aplikazioetako datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna*

** Pertsona fisikoek edozein momentutan aukeratu ahal izango dute Tolosako Udalaren harremanetan jartzen direnean beren eskubideak edo betebeharrak betetzeko bitarteko elektronikoak baliatzen dituzten ala ez, non eta ez dauden bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuak. Pertsonak Udalarekin harremanetan jartzeko aukeratutako bitartekoa edozein momentutan aldatu ahal izango du.*

Eskubide horiez gain, interesdunari administrazio-prozeduran aitortutakoak ere izango dituzte.

4. artikulua. Ordenantzaren helburua.

Hauxe dira Ordenantza honen helburuak:

1. *Herritarrentzako Arreta Zerbitzuari ematen zaizkion jarduera guztiak biltzea eta definitzea.*
2. *Prozedurazko arau batzuk jartzea, Ebazpen Egintzak izeneko espedienteak eta kudeaketak arautuko dituztenak.*
3. *Herritarrek Administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideak bermatzea, aurreko atalean xedatutakoaren arabera.*

5. artikulua. Antolakuntzaren printzipioa.



TOLOSAKO
UDALA

Zerbitzu hau bereizten duen antolakuntzako printzipioa oinarritzko bi elementutan oinarritzen da:

- a) Zerbitzu bakar batean kontzentratzen da herritarrek Udalari egiten dizkioten ohiko eskaeren arreta.
- b) *Zerbitzuarekin loturiko* lanpostuak polibalenteak dira.

6. artikulua. Udal izapideen eskuliburua

1. *Izapideen eskuliburua da herritarrei zuzendutako izapide eta zerbitzuen katalogoa, kudeaketa-tresna bat, malgua eta komunitateari ematen zaion zerbitzua ebaluatuta sortzen diren behar eta eskaeretara egokitzeko modukoa. Hartara, garrantzitsua da elementu bizi eta praktikoa izatea, indarrean dauden legeen eta momentu soziala kontuan dituen.*

2. *Berrikuspen orokorra egingo da, gutxienez urtean behin, eta bertan parte hartu beharko dute Udaleko sail eta azpisailek; horiei egokitu zaie beren izapideak egunean mantentzea.*

Hala ere, aldaketa-behar puntualak berehala aplikatuko dira.

3. *Eskuliburu hori Udalaren web-orrian argitaratuko da.*

7. artikulua Udaleko Zerbitzuekiko harremana.

1. UDATE Zerbitzua udal egituraren barruko zerbitzu bat da eta Udaleko gainerako arloen zerbitzura dago, herritarrei arreta pertsonalizatua emateko helburu nagusiari jarraiki, *izaera transbertsala izanik.*

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua elkarlanean arituko da Udaleko zerbitzu desberdinekin. Horrela, bere instalazioetan, ekimen eta jarduera desberdinei buruz herritarrei eman beharreko informazioa eta eskaini beharreko arreta antolatuko eta prestatuko ditu, hala nola, informazio orokorra, errolda berriztatzeak, hirigintza-planak, bekak eta laguntzak, matrikulazioak, etab.

Udalaren administrazio-unitateak izango dira, funtzioengatik unitate horiei dagozkien gaietan, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak egiten dituen jarduera guztien azken arduradunak, zerbitzu honi agintzen zaizkion eta bere ardurapekoak diren jardueren kasuan izan ezik.



TOLOSAKO
UDALA

2. Zerbitzu bakoitzak eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak agiri bat sinatuko dute elkarren arteko harremana arautzeko. Agiri hori barne hitzarmen bat izango da.

3. *UDATE zerbitzua lankidetzan jardungo da Udaleko sail eta azpisailekin bere instalazioetan antolatu eta eskainita herritarrei informazioa eta arreta emateko ekimen eta jarduerak, adibidez, informazio orokorra, errolda berritzea, hirigintzako planak, bekak eta laguntzak, matrikulazioak, kanpainak, erreklamazio-epeak, jendaurreko erakustaldiak, etab.*

4. *UDATE zerbitzua izango da burutzen dituen funtzioen erantzule. Hala ere, Udaleko gainontzeko sailak dira beren espediente eta ekimenen azken erantzule, guztiz edo partzialki UDATEk zerbitzuak burutu baditu ere.*

8. artikulua. Harremanen barne hitzarmena.

Tolosako udaleko Sailen eta UDATE Zerbitzuaren arteko harremana arautzeko barne hitzarmenak kontuan izango ditu UDATEk udal zerbitzu bakoitzari emango dion zerbitzua ona izateko behar-beharrezkoak diren gai guztiak.

Lankidetzako barne-hitzarmenak sinatuko dituzte Departamentu bakoitzeko arduradun teknikoak eta politikoak eta Udal Idazkaritzako arduradun teknikoak eta politikoak, hori baita UDATE zerbitzuaz arduratzen den saila.

Udal honek onarturiko araudietan xedatutakoaren eta Ordenantza honetan adierazitakoaren arabera, eta araudiak ematen dizkion eskumenen baitan, udal sailek UDATE zerbitzuarekin izango dituzten harremanak arautzeko sinatuko duten hitzarmena euskaraz erredaktatuko dira, euskara delako Tolosako udaleko laneko hizkuntza. Hitzarmenaren gutxieneko edukia osatzen duten agiri eta jarduketak ere hizkuntza horretan egingo dituzte: izapideen eskuliburua, gertaeren gaineko informazioa (gertaerak, epeak, dokumentazio grafikoaren testuak,..), besteak beste, argitaratu behar den dokumentazioaren kasuan indarrean dagoen legeriak xedaturikoaren kalterik gabe.

Hitzarmenak, gutxienez, honako edukia izango du:

1º Zerbitzuko Izapideen Eskuliburua

2º Zerbitzuak UDATEri eman beharreko informazioa, aldizkakotasuna eta bidaltzeko bidea.

3º UDATE Zerbitzuak gainontzeko sailekin hartzen dituen konpromisoak.



4º Prozeduren aldizkako ebaluazioa.

8.1º: Izapideen Eskuliburua: *Jasoko da sail/azpisail bakoitzaren izapideen zerrenda, zehaztuta bakoitzean zein gestio dagozkion UDATE zerbitzuari eta zein sail/azpisailari.*

8.2º. Zerbitzu bakoitzeko informazioa.

1). UDATEk duen informazioa benetakoa eta eguneratua dela bermatzeko ezinbestekoa da informazioa bidaltzeko egitura arin, argi eta erabilgarri bat diseinatzea eta, horretarako, behar-beharrezkoa da honako hauek egitea: Pertsona bat izendatzea, *dagokion* zerbitzuaren eta UDATE Zerbitzuaren arteko bitartekari-lanak egiteko.

2). UDATEn eta Udalaren gainontzeko Zerbitzu funtzionalen arteko koordinazio egokia bermatzeko, **Zerbitzu bakoitzeko lanpostu erreferente** bat jarriko da, ondorengo funtzioak izango dituen:

- UDATE eta *dagokion* zerbitzuaren arteko bitartekari edo zubi lanak egitea eta bere langileei laguntza ematea, hala eskatzen diotenean.

- UDATE Zerbitzuko **koordinatzaileari** zerbitzuko jarduera guztien berri ematea, herritarrei begira eragina badaukate; hala nola, prozeduren, kexen eta erreklamazioen tramitazio egoera, iragarkiak, kanpainak eta, oro har, zerbitzuko jarduera guztiak.

- Herritarrek UDATEn aurkeztutako eskaerei erantzun bat emateko, *dagokion* zerbitzuaren barruan egin beharreko jarduera guztiak zaintzea eta koordinatzea.

- Unitatearen eta UDATE Zerbitzuaren arteko harremanak arautzen dituen hitzarmenen edukia behar bezala betetzen dela kontrolatzea, eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak .

- Konpromisoa hartzea Herritarrentzako Arreta Zerbitzuko langileei laguntzeko.

- Konpromisoa hartzea ondorengo aldaketen edo egintzen berri Herritarrentzako Arreta Zerbitzuari berehala emateko:

- Berriak, jazoerak edo gertaerak.
- Horien datak eta epeak.
- Herritarrek tramiterako bete beharreko baldintzak.
- Gertaeraren tramitazio egoera.
- Gertaeraren dokumentazio grafikoa.

- Herritarrentzako Arreta Zerbitzuarekiko erabateko inplikazioa ezartzea, hura delako Udalaren solaskide bateratua.

- Sinatu den Barne Hitzarmen hau behar bezala betetzeko konpromisoa.



8.3º. *UDATEk hartzen dituen konpromisoak gainontzeko sailekin::*

- 1) Zerbitzu funtzional bakoitzaren eskumenekoa den dokumentazioa erregistratzen den egun berean bidaltzea, lanaldia bukatzen denean.
- 2) Zerbitzu bakoitzak helarazitako informazioa profesionaltasun eta ardura osoz ematea, arreta eta informazioa eskaintzean, zerbitzua eta kalitatea bermatzeko.
- 3) Zerbitzu bakoitzari, aldian-aldian, herritarrek, zuzeneko tratu horren ondorioz, egin edo iradoki ditzaketen ekarpenak aditzera ematea.

8.4º. Prozeduren aldizkako ebaluazioa.

«Izapideen Eskuliburua» kudeaketa tresna bat da. Tresna horrek, hortaz, malgua izan behar du, herritarrei emandako zerbitzuaren ebaluaziotik sortutako behar eta eskarietara moldatzen dena.

Garrantzitsua da, beraz, elementu bizi eta praktikoa izatea, indarreko legeekin eta garaiko gizartearekin zuzeneko lotura duena.

Urtean behin bilera orokor bat egingo da, baina, hala ere, berehala aplikatzekoak diren unean uneko aldaketek sortutako beharrak albo batera utzi gabe.

9. artikulua. Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren jarduerari buruzko informazioa.

Aldian-aldian, UDATE Zerbitzuaren eskumeneko jarduerari buruzko estatistikak egingo dira, herritarrek aurkeztutako eskaerak, kexak eta iradokizunak, aberia abisuak, ebazpen egintzak zeintzuk diren, eta zenbat eta zer nolako kontsultak egin diren hobeto jakiteko.

Aldian-aldian, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren eta Zerbitzuaren arteko harremanean izandako arazoei buruzko txostena egingo da, arazorik egon bada.

10. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Egingo diren eskaerak honakoak jasoko dituzte:

- a) Interesdunaren izen-abizenak, eta hala dagokionean, bere ordeztarritako den pertsonarenak.



TOLOSAKO
UDALA

- b) Jakinarazpena egiteko erabili nahi den bitarteko elektronikoaren, edo hala izan ezean, leku fisikoaren identifikazioa. Nahi izanez gero, interesdunek posta elektronikoaren edota gailu elektronikoaren helbidea eman ahal izango dute, Herri Administrazioek jakinarazpena bidali izanari edo eskura jarri izanari buruzko abisua emateko.
- c) Argi eta garbi, eskaera zehazteko egitateak, arrazoiak eta eskabideak.
- d) Lekua eta data.
- e) Eskatzailearen sinadura edo, bere borondatearen egiaztapena, edozein bitartekoren bidez adierazita.
- f) Administrazioko zein organo, erakunde edo unitateri bidaltzen zaion.
- g) Prozeduraren arabera, aurkeztu beharreko dokumentazioa. Dokumentazio hori Tolosako Udalaren Prozeduren Eskuliburuan egongo da jasota.

11. artikulua. Dokumentazioa artxibatzea.

Zerbitzu bakoitzaren ardura izango da zerbitzu funtzional bakoitzaren eskumeneko espedienteen eta kudeaketen inguruan Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan sortutako dokumentazioa artxibatzea. Beraz, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak dokumentazio hori helaraziko die, kasu bakoitzean ezarritako maiztasunarekin.

II. TITULUA: INFORMAZIO FUNTZIOA

12. artikulua. Informazio funtzioa.

UDATE zerbitzuak lotura lanak egingo ditu herritarren eta administrazioaren artean eta, ondorioz, informazio eta hurbilketa funtzioak beteko ditu udal bizitzan, herriaren bizitza sozialean eta beste administrazio eta zerbitzu batzuekiko harremanetan. Azken finean, informazio administratiboa bitarteko egokia da herritarrek udal jardueren berri izan dezaten eta ondasun eta zerbitzu publikoak erabil ditzaten.

Oinarri-oinarrian, honako hauek izango dira informazio funtzioak:

- Pertsonen harrera egitea eta arreta eskaintzea, bisitaren lehenengo unean behar duten orientazioa eta laguntza emateko eta, bereziki, bulegoak eta funtzionarioak non dauden esateko.



- Orientazioa eta informazioa ematea, burutu nahi dituzten proiektuak, jarduerak eta dokumentazioa bideratzeko tramiteei, baldintzei eta dokumentazioari buruzko argibideak eta laguntzak emateko; edo bestela, zerbitzuren bat eskuratzeko edo prestazioren batez gozatzeko.

- Informazioa ematea prozeduren tramitazio egoerari buruz, eta jendaurrean daudenean, udal espedienteetara eta dokumentuetara iristeko edo horietan parte hartzeko eskubidea baliatu dezaketela adieraztea.

13. artikulua. Informazioa zabaltzeko bitartekoak.

Herritarrari behar duen informazioa emateko, une bakoitzean, zabalkundea egiteko egokiak diren bitartekoak erabiliko dira eta, batez ere, urruneko informazioa helarazteko aukera ematen dutenak sustatuko dira, hala nola, argitalpenak, telefono-sistemak edo aurrerapen teknologikoei esker erabil daitekeen beste edozein komunikabide.

Zehatz-mehatz esateko, UDATE Zerbitzuak oinarrizko bide hauek edukiko ditu informazioa zabaltzeko:

1. Aurrez aurreko arreta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.
2. Telefono bidezko arreta.
3. Udaleko webgunea.
4. Udaleko iragarki-taula.
5. Argitalpenak, buletinak, bandoak.
6. Sare sozialak, SMSak eta bestelakoak.

I. KAPITULUA. INFORMAZIO OROKORRA

14. artikulua. Edukia.

Ondorengo gaiei buruzko informazio orokorra da:

A. Erakunde eta unitate administratiboen identifikazioa, helburuak, eskumenak, egitura, funtzionamendua eta kokalekua.

B. Herritarrek egin nahi dituzten proiektu, jarduketa edo eskaerretarako indarreko lege-xedapenek ezarritako eskakizun juridiko edo teknikoei buruzko informazioa.

C. Prozeduren tramitazioari, zerbitzu publikoei eta prestazioei buruzkoa, eta administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek jakin behar dituzten datuak.



TOLOSAKO
UDALA

Osagarri modura, Udalaz gaindiko zerbitzu eta tramiteei buruzko informazioa ere emango da, herritarrentzat interesgarria dela pentsatzen bada.

D. Jendaurreko erakustaldian dagoen prozeduraren edo prozeduraren zati jakin baten berri izatea; hartara, interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte.

15. artikulua. Informazioa ematea.

Aurreko artikuluen A, B, C eta D ataletan jasotako informazioa nahitaez emango zaie herritarrei, horretarako inolako zilegitasunik egiaztatzeko beharrik izan gabe.

16. artikulua. Amaitutako espedienteen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

Pertsona orok du eskubidea eskaera egiten duen egunean amaituta dauden espedienteetako eduki edo dokumentuei buruzko informazio publikoa eskuratzeko, edozein formatu edo euskarritan, Udalak baditu edo bere funtzioen jardunean egin edo eskuratu baditu.

Guztia ere Konstituzioan, Gardentasunari eta gobernu onari buruzko legean, Euskadiko toki-erakundeei buruzko Legean eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritako baldintzekin.

Informazio publikoa eskuratzeko, eskaera zuzenduko zaio Agiritegia azpisailari.

Eskaera aurkeztu ahal izango da alderdi hauek jasota uzteko aukera ematen duen edozein bitartekoren bidez:

- a) Eskatzailearen nortasuna*
- b) Eskatzen duen informazioa; indibidualizatua izan beharko du, ezin da gai bati edo multzo bati buruzko eskaera orokorrik egin*
- c) Harremanetarako helbide bat, ahal izanez gero elektronikoa, komunikazioetarako*
- d) Hala badagokio, nola jaso nahi duen eskatutako informazioa*

Informazio publikoa eskuratzeko mugak izango dira Estatuko eta autonomia-erkidegoko gardentasun-araudiek, datuen babesari buruzkoek, dena delako prozeduraren sektoreko araudiak eta administrazio-prozedura erkidearen legeriak ezarritakoak.

Informazioa eskuratzea doakoa da. Hala ere, tasak sortuko dira kopiak jaulkitzen badira edo jatorrizkoaren formatu desberdinerara pasatzen bada informazioa.



TOLOSAKO
UDALA

17. artikulua. Informazio publikoa

Jendaurreko informazioaren berri ematen duen iragarkian zehaztu egingo da informazio hori non erakutsiko den eta alegazioak aurkezteko zein epe dauden. Epe hori, gutxienez, hogeitaz egunekoa izango da.

Jendaurreko informazioan, erakusgai egongo dira prozedura bera, prozeduraren zati bat edo dokumentazioa, horretarako egokitutako gela batean. Baina erakusten den informazioa ezingo da egoitza horretatik atera eta ez da dokumentuen erreproduktioerik emango.

18. artikulua. Administrazioetako erregistroetara iristea.

Herritarrek informazio publikoa, artxiak eta erregistroak eskuratzeko eskubidea izango dute, Konstituzioan; gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzko Legean; ezar daitezkeen gainerako legeetan.

Informazioa lortzeko, Tolosako Udalaren Tramiteen Eskuliburuan aurreikusitako prozedura jarraituko da.

19. artikulua. Kopia lortzea.

Kopia idatziz eskatu beharko dira, eta zehatz-mehatz adierazi beharko da zein dokumentu eskatzen den.

Dokumentazioa edo informazioa eskuratzeko eskubideak kopia edo egiaztagiriak lortzeko eskubidea ere emango du (paperean edo euskarri digitalean). Dokumentuen kopia bide telematikoz bidali ahalko dira, Udalak hala baimentzen bada. Aldez aurretik, ordea, lege ezarrita dauden ordainarazpenak egin beharko dira.

Kanpoan egindako dokumentu batzuen kopia eskatzen bada, kopia horiek eman aurretik, horiek egiteak Udalarentzat duen edo izan duten kostua ordaindu beharko da.

II. KAPITULUA. INTERESATUEI INFORMAZIOA EMATEA

20. artikulua. Edukia.

Tramitatzen ari diren prozeduren egoerari edo edukiari buruzkoa, eta prozedura horien tramitazioaren ardura duten agintarien edo administrazioeko langileen identifikazioari buruzkoa.



21. artikulua. Informazioa lortzeko eta eskuratzeko eskubidea.

Interesdun izaera, Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen legeriak oinarritzat hartuta ebatziko da.

Interesdunek honakoak egin ahalko dituzte UDATE Zerbitzuaren bitartez:

- a) Edozein unetan prozeduraren tramitazioaren egoerari buruzko informazioa jasotzea.
- b) Espedientean dauden dokumentuak eskuratzeko, izendunak izan ezik. Dena dela, titular ez diren pertsonak izendun agiriak eskuratzeko eskubideaz baliatu ahal izango dira, baldin eta, pertsonen intimitateari buruzko bestelako daturik sartu gabe, zuzenbidearen aplikazioko prozeduretan agertzen badira, zigor edo diziiplina arloko prozeduretan izan ezik, eta, edukia kontuan hartuta, herritarren eskubideak betearazteko erabili ahal baldin badira.
- c) Entzunaldian parte hartzea, alegazioak egiteko eta egoki iruditzen zaizkien dokumentuak eta justifikazioak aurkezteko.
- d) *Orokorrean, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoetako Prozedura Erkidea arautzen duenak, onartzen dizkien eskubideak egikaritu ahal izango dituzte.*

Interesdunek edo haien ordezkariak idatziz egin beharko dituzte informazioa lortzeko edo dokumentazioa eskuratzeko eskaerak.

22. artikulua. Entzunaldia.

Prozedura bera, prozeduraren zati bat edo dokumentazioa egongo da ikusgai erakustaldian, horretarako egokitutako gela batean. Baina erakusten den informazioa ezingo da egoitza horretatik atera eta ez da dokumentuen erreproduktzioerik emango. Dena den, interesdunak eskaera formala egin dezake espedientearen zati baten edo espediente osoaren kopiak eskuratzeko.

III. TITULUA: KUDEAKETA FUNTZIOA

23. artikulua. Kudeaketa funtzioa.

Hauek izango dira kudeaketa funtzioak:



1. *Udalaren administrazio-prozedurei oro har dagokienez, Udaleko idazkari nagusiaren ardura izanda ere, UDATE arduratuko da Udaleko sarrera erregistroa kudeatzeaz, hala euskarri fisiko nola informatikoan.*
2. *Berehalako arreta ematea, edozein bidetik, herritarrei; funtzio honetan sartuta dago laguntza ematea, aginduta dituzten udal-tramiteen baldintza tekniko-juridikoak betetzeari buruzko aholkularitza eskaintzea eta dokumentazioa edozein euskarritan hartzea.*
3. *Herritarren Udal Errolda kudeatzea, Udaleko idazkari nagusiak agindutako alderdi hauei dagokionez, betiere harekin lankidetzan burutzeko: herritarrei arreta ematea; erroldako altak, bajak, aldaketak eta mantenua kudeatzea.*
4. *Jendaurrean jartzea udaleko nahiz beste erakunde publiko batzuek bidalitako ediktuak; bai eta hauteskunde-prozesuetako errolda-datuak, epaimahaietako zerrendak, etab.*
5. *Herritarren abisu, kexa, galdera eta iradokizunak kudeatzea.*
6. *Eskaerak burutzeko eskubidea kudeatzea.*
7. *Interesdunei bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzea.*
8. *Zinegotzien eta teknikarien hitzorduak kudeatzea.*
9. *Tolosako herritarrei dokumentuak konpultsatzea, ordenantza honen 58. eta 59.. artikuluetan xedatutakoaren arabera.*
10. *Informazio publikorako eskubidea kudeatzea; hala ere, Udaleko arduradunek barnean izapidetu ahal izango dituzte.*
11. *Ahalordeen erregistro elektronikoa kudeatzea.*
12. *Sarrerako posta jaso eta banatzea.*
13. *Argitalpenak eta planoak banatzea eta, hala badagokio, saltzea.*
14. *Objektu galduak kudeatzea.*

24. artikulua. Leihatila bakarra.

«Leihatila bakarra» izeneko antolakuntza-arauen mende eratzen dira UDATE Zerbitzuko kudeaketaren funtzioak. Horiek horrela, zentro balioaniztun bakarra eskaintzen zaie herritarrei, Tolosako Udalarekin (*eta hitzartutako gainontzeko administrazioekin*) izango dituzten harremanetarako.

25. artikulua. Ordezkaritza.

1. Tolosako Udalaren aurrean ordezkarri baten bidez jardun ahalko da. Administrazio prozedura arautzen duen oinarrizko legerian jasotakoaren arabera



egiaztatuko eta gauzatuko da ordezkari eta, hala dagokionean, Tolosako Udaleko Izapideen Eskuliburuan jasotako zehaztapenei jarraiki.

2. *Jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek, betiere Estatuetan hala ezarrita badute, beste batzuen ordezkari izan ahalko dute Tolosako Udalaren aurrean.*

3. *Ordezkaritza egiaztatu beharko da beste norbaiten izenean eskaerak egin, erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkeztu, errekursoak jarri, egintzan atzera egin eta eskubideei uko egiteko. Izapide hutsetako egintza eta kudeaketetarako uste izango da ordezkari bada.*

4. *Ordezkaritza egiaztatu ahal izango da zuzenbidean baliozkoa den eta ziurtasuna ematen duen edozein bidetik (apud acta, notario-ahalordea, idatzi legitimatua, organo baten erabakia). Ondorio horietarako, ordezkari egiaztatua izango da gauzatzen dena norbera agertuta edo egoitza elektronikoa elektronikoki agertuta egindako apud acta ahalorde bidez edo Udaleko ahalordeen erregistro elektronikoa edo Udalak sarbidea duen beste administrazio batzuen erregistroan inskribatuta.*

5. *Administrazio-espeditetan sartu beharko da ordezkari-izaeraren egiaztapena. Ahalordeen erregistro elektronikoa emaitza egiaztatzen duen dokumentu elektronikoa egiaztagiriz joko da aipatutako ondorioetarako.*

6. *Ordezkaritza ez egiaztatzeak edo behar bezala ez egiaztatzeak ez du eragotziko dena delako egintza egintzat ematea, betiere hamar egun balioduneko epean egiaztagiria aurkezten bada edo akatsa konpontzen bada.*

26. artikulua Ahalordetze-erregistro elektronikoa (2020ko urritik aurrera).

UDATEk kudeatuko du Udalaren ahalordetze-erregistro elektronikoa, eta honako datu hauek jasoko ditu:

a. Ahalorde-emaiaren izen-abizenak edo sozietatearen izena; nortasun-agiri nazionala, identifikazio fiskaleko zenbakia edo agiri baliokideren bat.

b. Ahalordedunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena; nortasun-agiri nazionala, identifikazio fiskaleko zenbakia edo agiri baliokideren bat.

c. Ahalordetze-erregistroko inskripzioaren data.

d. Zenbat denborarako ematen den ahalordea.



e. Ahalorde-mota, Udalaren aurrean ematen dituen ahalmenen arabera.

Erregistroan inskribatutako ahalordeek bost urterako balioa izango dute, gehienez, inskripzioa egiten den datatik aurrera. Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, nolana ere, ahalorde-emaileak errebokatu edo luzatu ahalko du ahalordea. Ahalorde-emaileak erregistroari emandako luzapenek bost urterako balioa izango dute, gehienez ere, inskripzioa egiten den datatik aurrera.

Ahalordetze elektronikoak elektronikoki sinatuta egon beharko du, ematen duen pertsonak sinatuta.

27. artikulua. Barne komunikazioa.

Astero, egindako kudeaketen berri emango zaie zerbitzu funtzional guztiei, bakoitzari bere eskumenen arabera, jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioak izateko.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak bitarteko informatikoen bidez erregistratuko du horrelako zenbat gestio egin diren.

28. artikulua. Telefono edo posta elektronikoko bidezko kudeaketa.

- 1. Telefonoz edo posta elektronikoz egin daitezkeen kudeaketak onartuko dira.*
- 2. Telefonoz edo posta elektronikoz egin daitezkeen izapideak definituko dira Udal Izapideen Eskuliburuan.*
- 3. Horrelako gaien tramitazioan interesdunen nortasuna ziurtatutako da nortasun-agiriaren (NAN, pasaporte, etab.) bidez eta Udalari aurrez jakinarazitako daturen baten bidez.*
- 4. UDATE zerbitzuak, eskaera telefonoz edo posta elektronikoz jasotzen duenean, egoki diren gestioak egingo ditu eta, eskatzailea identifikatu ondoren, etxera bidaliko dio eskatutako izapidea egiaztatzen duen dokumentua.*
- 5. Telefonoz edo posta elektronikoz egindako izapideen erregistroa. Bermatuko da telefonoz edo posta elektronikoz egindako eskaera jasota geratzen dela hainbat tresna informatikoren bidez.*

29. artikulua. Identitatea.

Telefono bidezko kudeaketak tramitatzekoan, prozesu hau jarraituko da interesdunaren identitatea ziurtatzeko:



1. Komunikatzailearen identifikazio pertsonala.
2. Nortasun Agiri Nazionala egiaztatzea, jasota badago.
3. Gutxienez, lehenago ere, inoiz, Udalari komunikatu izan zaion beste datu bat egiaztatzea, deitzen duen pertsonaren identitatea egiaztatzearen.

Dena dela, interesdunei egin behar zaizkien jakinarazpenak, jakinarazpenetarako berariaz eman duten helbidean egingo dira, hau da, Udalaren erregistroetan azaltzen den helbidean.

30. artikulua. Prozedura.

Telefono bidez eskaera jaso ostean, UDATE Zerbitzuak egin beharreko kudeaketak egingo ditu eta, hala badagokio, eskatzailearengandik behar duen dokumentazio osoa jaso ondoren, eskatutako tramitearen frogagiria bidaliko du haren helbidera.

31. artikulua. Tramiteen erregistroa telefono bidez.

Telefono bidez egindako eskaera jasota geratzen dela bermatuko da, erabilitako tresna informatikoen bidez.

I. KAPITULUA. TRAMITE-EGINTZAK

32. artikulua. Deskribapena.

Tramite-Egintzak dira, herritarren eta dagokion zerbitzuaren arteko harremanerako, UDATE Zerbitzuaren bitartekaritza eskatzen duten tramite guztiak. Tramite horiek ebatzea, baina, zerbitzu funtzionalen eskumena izango da. Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren funtzioa soilik bien arteko harremanerako tresna izatea da.

33. artikulua. Sarrera erregistroa.

Erakundeei, edo hala badagokio, organoei zuzentzen zaizkien idatzien Sarrera Erregistroa dela-eta, Udalak burutzen duen jarduera UDATE Zerbitzuan egingo da.

Udalaren aurrean eskura aurkezten diren agiriak digitalizatu egin beharko ditu UDATEek. Jatorrizko agiriak interesdunari itzuliko zaizkio, hargatik eragotzi gabe zenbait kasutan arauak agintzen duenaren arabera Administrazioak zaindu behar



TOLOSAKO
UDALA

izatea aurkezten diren agiriak edo nahitaezkoa izatea objektu edo agiri batzuk euskarri espezifikoren batean aurkeztea eta ondorioz ezin digitalizatu izatea.

Aurrekoa gorabehera:

- a) Pertsona juridiko guztiek digitalizatuta edo euskarri elektronikoan aurkeztu beharko dituzte beren dokumentuak; eta horretaz gain, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14. artikuluan aurreikusitako baliabide elektronikoen bidez jarri beharko dute harremanetan.
- b) Pertsona fisikoak direla eta, euskarri digitalean aurkeztu beharko da profesional elkargokideek emandako dokumentazio tekniko guztia (esaterako, proiektu teknikoak edo ingurumen-memoriak).
- c) Profesional elkargokide diren pertsona fisikoek aurkeztutako dokumentazioa (esaterako, finka-administratzaileena) ere euskarri digitalean aurkeztu beharko da.
- d) Gainerako kasuetan, Udalak zenbait agiri bitarteko elektronikoz aurkeztu beharra ezarri ahal izango du zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikoetarako irispidea eta modua badutela.
- e) Ez dira erregistroan aurkeztutzat joko beren araubide bereziaren arabera beste aurkezpen-moduren bat behar duten agiriak eta informazioa; *legeriak xedaturiko kasuetan* zuzenketa egiteko eskatzeari kalterik egin gabe.

34. artikulua. Sarrera erregistroko oharra.

Dokumentu bat erregistratu ostean, ohar bat idatziko zaio, ondorengoa adierazteko: zein den inskripzio-eguna eta egokitu zaion hurrenkera zenbakia.

35. artikulua. Erregistratu beharreko dokumentuaren kontrola.

UDATE Zerbitzuko langileek egiaztatu beharko dute erregistroan aurkeztutako dokumentuak administrazio prozedura erkidea arautzen duen legeriak eta *aplikagarri zaion legeria sektorialak eskatzen dituzten* datuak betetzen dituela.

Hala ez bada, dokumentua konpontzeko eskaera inprimatuko da eta sinatu edo bidali duenari emango zaio, eta jakinaraziko zaio hamar eguneko epea duela akatsa zuzendu edo dagozkion dokumentuak aurkezteko. Ohartaraziko zaio, halaber, hori egin ezean eskaera artxibatu egingo dela, besterik gabe.



TOLOSAKO
UDALA

Idazpenak egingo dira dokumentuen sarrerako edo irteerako ordena errespetatuta, eta egunarekin jasoko dira

36. artikulua. Erregistratutako dokumentuaren kopia.

Interesdunek erregistroan aurkeztutako eskaeren, komunikazioen eta idatzien frogagiriak eskatu ahalko dituzte, zein egunetan aurkeztu dituzten frogatzeko. Frogagiritzat hartuko da aurkezpen eguna eta ordua jasota duen dokumentuaren kopia zigilatu bat.

37. artikulua. Beste administrazio batzuetara zuzendutako agirien erregistroa.

Udal honetako Erregistro Orokorrean aurkeztu ahalko dira edozein organo administratibori (Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia erkidegoetako administrazio guztiak, foru administrazioak edo tokiko administrazioa osatzen duen edozein erakunde) herritarrek zuzendutako eskaerak, idatziak eta komunikazioak, baldin horretarako hitzarmena sinatzen bada aurrez eta, indarrean jarri ondoren, 2018ko urritik aurrera alegia, Erregistro Elektronikoro Orokorretik, urriaren 1eko 39/2015 zk-dun Administrazioaren Prozedura legeko 16.1 artikuluaaren arabera.

38. artikulua. Sailkapena eta banaketa.

Agiriak erregistratu ondoren, horiek jaso behar dituzten organo edo entitateei bidaliko zaizkie administrazio bakoitzarekin egindako hitzarmenean jarritako epean, eta edonola ere, agiriak jaso eta *gehienez* handik bi eguneko epean.

Agiri horiek bidaltzeko bitartekorik egokienak erabiliko dira, hartzailleak ahalik eta lasterren jaso ditzan. Ahal den guztietan bitarteko informatikoak, elektronikoak edo telematikoak erabiliko dira, eta beti ere, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen Legeak jasotzen dituen betebeharrak eta bermeak beteko dira.

39. artikulua. Berezko Erregistroen eta hitzartutako Erregistroen publizitatea.

Udalak bere erregistroen eta hitzartutako erregistroen zerrenda bat argitaratuko du (horietaz baliatzeko sistema eta funtzionamendu ordutegia sartuta) eta eguneratuta edukiko du.

II. KAPITULUA. EBAZPEN EGINTZAK



TOLOSAKO
UDALA

40. artikulua. Deskribapena.

UDATE Zerbitzuak irtenbidea emango die kudeaketa ohikoenei, errazenei eta bolumen handienekoei, egintza zuzen eta autonomoen bidez, baldin horretarako bitartekoak eta eskumenak baditu.

41. artikulua. Egintza motak.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak egingo dituen egintzak ondorengo 4 ataletan sailkatzen dira, ordenantza honen ondorioetarako:

- A. Berresteko edo egiaztatzeko egintzak.
- B. Eguneratzeko egintzak.
- C. Ezagutzazko egintzak.
- D. Jarduera egintzak.

LEHENENGO ATALA. -Berresteko edo egiaztatzeko ebazpen egintzak

42. artikulua. Deskribapena.

«Berresteko edo Egiaztatzeko Egintzak» kudeaketa errazak dira, herritarren eskaerei erantzuten dietenak, eta horretarako, erregistro administratiboetan lehendik dagoena berretsi edo egiaztatu baino egiten ez dutenak. Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak bitartekoak eta eskumenak izango ditu horiek modu zuzenean eta autonomoan egiteko.

43. artikulua. Erregistroak.

Tolosako Udaleko erregistro administratiboak paperezko euskarrian, informatikoan edo beste edozein euskarritan jasota egongo dira eta eskubideak, betebeharrak, ezaugarriak edo lehendik dauden egoerak azkar eta ziur jakiteko balio dute, Udalak bere ahalmenak modu eraginkorragoan balia ditzan.

44. artikulua. Erregistroetara iristea.



TOLOSAKO
UDALA

Iristeko eskubideak berekin darama Udalak baimendutako bolantea eskuratzeko eskubidea. Aldez aurretik, ordea, legez ezarrita dauden ordainarazpenak egin beharko dira, hala badagokio.

BIGARREN ATALA. Eguneratzeko ebazpen egintzak

45. artikulua. Deskribapena.

«Eguneratzeko Egintzak» erregistro administratibo operatiboak aldatzeko egintzak dira. UDATE Zerbitzuak bitartekoak eta eskumenak izango ditu horiek modu zuzenean eta autonomoan egiteko.

46. artikulua. Sarrera-Irteera erregistroa.

Tolosako Udaleko Alkatezari zuzendutako idatzi bidez eskatuko dute herritarrek aldaketa. Idatziari sarrerako erregistroa emango zaio.

Era horretako tramiteek, berez duten izaerarengatik, ez dute berriazko ebazpenik eskatzen.

47. artikulua. Eguneratzeko ebazpen egintzen katalogoa.

Alkatearen ebazpen bidez, eta Ordenantza honetako I. Tituluan ezarritako prozedura («Harremanen barne hitzarmena») burutu aurretik, zehaztuko da zeintzuk diren UDATE Zerbitzuak egingo dituen eguneratze egintzak.

Tramiteen katalogo hori jendearentzat eskuragarri egongo da Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

HIRUGARREN ATALA. Ezagutzazko ebazpen egintzak

48. artikulua. Deskribapena.

«Ezagutzazko Egintzak»: Egintza horien bidez, Udala herritarrak aitortu duen jardueraren jakitun geratzen da, dagozkion ondorioetarako. Egintzak bolumen handikoak izaten dira, izaera arautukoak eta errepikakorrak.

49. artikulua. Ezagutzazko agiriaren definizioa eta eragina.



TOLOSAKO
UDALA

Udate Zerbitzuko langileek agiri bat egingo dute. Agirian bi gauza jasoko dira: lehenengo zatian, herritarraren adierazpena eta, jarraian, administrazioa horren jakitun geratu dela.

Ezagutzazko Egintzak ahalmena ematen dio interesdunari adierazitako eta kontu-hartutako jarduera egiteko. Dena den, Udalak ahalmena izango du jarduera hori berrikusteko eta, zuzenbidearen aurka badoa, ez baimentzeko.

50. artikulua. Ezagutzazko agiria ematea.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuko langileek emango dituzte Ezagutzazko Egintzaren egiaztagiriak, eskaera egin eta berehala. Hori bai, aldezturik, legeztarritako dauden ordainarazpenak egingo dira.

51. artikulua. Sarrera-Irteera erregistroa.

Tolosako Udaleko Alkateari zuzendutako idatzi bidez egingo dute interesdunek komunikazioa. Idatziari sarrerako erregistroa emango zaio.

Era horretako tramiteek, berez duten izaerarengatik, ez dute berriazko ebazpenik eskatzen.

52. artikulua. Ezagutzazko ebazpen egintzen katalogoa.

Alkatearen ebazpen bidez zehaztuko da zeintzuk diren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak egingo dituen «Ezagutzazko Egintzak». Aldezturik, Ordenantza honetako I. Tituluan jarritako prozedura («Harremanen barne hitzarmena») burutuko da.

Tramiteen katalogo hori jendearentzat eskuragarri egongo da Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

LAUGARREN ATALA. Jarduerako ebazpen egintzak

Lehenengo azpiatala. -Komunikazioak jasotzea eta tramitatzea

53. artikulua. Komunikazioaren definizioa.

Ordenantza honen ondorioetarako, komunikaziotzat hartzen dira herritarrek, laguntzeko borondatearekin, ahoz edo idatziz, udal zerbitzuen funtzionamenduen gainean iradokizunen bat, kexaren bat, arazoren bat edo esker onen bat adierazten dutenean,



TOLOSAKO
UDALA

baldin eta komunikazio horrek ez baditu betetzen administrazio prozedurako legerian eskaerretarako aurreikusitako betekizunak.

54. artikulua. Komunikazioen erregistroa.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan komunikazioen erregistro bat egongo da. Erregistro horretan azaldu eta proposatuko da udal zerbitzuak berritzeko edo hobetzeko egokitzat jotzen den guztia.

55. artikulua. Aurkezpena.

Komunikazioen erregistroan jasoko dira ondoren adieraziko den eraren batean jasotako komunikazioak:

- Aurrez aurre, horretarako egindako inprimakiaren bidez.
- Telefono bidez.
- Legeak ezarritako beste edozein bitartekoren bidez.

UDATE Zerbitzuko langileek lagundu egingo diete herritarrei komunikazioak idazten eta jasotzen.

56. artikulua. Tratamendua.

UDATE Zerbitzuan sailkatu eta prozesatuko dira komunikazioak eta, ondoren, berehala helaraziko dute bakoitza bere zerbitzura.

Zerbitzu eskudunak komunikazioak jaso eta, hala behar izanez gero, komunikazio-egileari eskatu beharreko argibideak eskatu ostean, gehienez ere 10 egun balioduneko epea edukiko du egindako edo egingo dituen jardueren berri Herritarrentzako Arreta Zerbitzuari emateko eta hark berehala komunikazio-egileari jakinarazteko.

57. artikulua. Herritarren abisu, kexa, iradokizun, galdera eta esker-adierazpenak kudeatzea

Ordenantza honen ondorioetarako, "komunikazioak" izango dira herritarren ahozko edo idatzizko adierazpenak, lankidetzarako borondatek abiatuta iradokizun, kexa, arazo, galdera edo esker ona adierazten dutenak, Udalaren zerbitzuen



funtzionamenduaren inguruan, administrazio-prozeduraren legean eskaerretarako aurreikusitako baldintzak betetzen ez badituzte.

1. Komunikazioen datu-basea

UDATE zerbitzuan komunikazioen datu-base bat egongo da, Udalaren zerbitzuak berritu edo hobetzeko azalpenak edo proposamenak egiteko.

2. Aurkezpena

Komunikazioen datu-basean sartuko dira bide hauetakoren baten bidez egindako komunikazioak:

- Aurrez aurre, berariazko inprimakiaren bidez*
- Telefonoz*
- Webgunearen eta sare sozialen bidez*
- Posta elektronikoz*
- Udalaren beste aplikazio batzuen bidez (whatsapp, telegram, etab.)*

UDATE zerbitzuko langileek herritarrari lagundu ahal izango diote bere komunikazioa egiten eta jasotzen.

3. Tratamendua

Komunikazioak UDATE zerbitzuan sailkatu eta prozesatuko dira eta bertatik bidaliko dituzte dagokion sailera eta, aldi berean, erantzungo dio bidaltzaileari, jakinaraziz bere komunikazioa jaso eta izapidetu dela.

Sail eskudunak komunikazioak jasota, gehienez ere 5 egun balioduneko epean eta komunikazioa egin duenak egoki deritzen azalpenak egin ondoren, UDATE zerbitzuari emango dio burutu diren edo aurreikusten diren jarduketan berri, UDATE zerbitzuak berehala eman diezaion horien berri komunikazioa aurkeztu duenari.

4. Erantzuna

UDATE zerbitzuan kexa, iradokizuna, abisu, galdera edo esker onak jasotzen direnean, 15 eguneko epea ezartzen da interesdunei egindako jarduketan berri emateko sail/azpisailak adierazitakoaren arabera.

5. Jarduketak eta jarraipena

UDATE zerbitzuak kontrolatuko ditu sail/azpisailei eragiten dieten komunikazioak.

Aldizka, ahal dela sei hilero, Udalean komunikazioen hartzaile diren arduradun tekniko eta politikoei igorriko zaie zerrenda bat, adierazita aurkeztu diren kexa, abisu, galdera, iradokizun eta esker onak, erantzuteko epeak eta erantzunak eta hartutako neurriak.

6. Kexen ondorioak

Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera egindako kexak ez dira administrazio-errekurtsu gisa hartuko, eta horiek aurkezteak ez ditu etengo indarreko araudian ezarritako epeak.



TOLOSAKO
UDALA

Kexa horiek ez dituzte inola baldintzatzen prozedura bakoitza erregulatzen duen araudiaren arabera interesdunek burutu ditzaketen gainerako egintza edo eskubideak.

Bigarren azpiatala. Dokumentuak konpultsatzea

58. artikulua. Definizioa.

Dokumentuen konpultsak jatorrizko dokumentu baten kopia egiaztatzen du, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

39/2015 Legeko 16.5 artikulua dokumentuen digitalizazioaren alde egin du, konpultsen erabilera ia hutsean utziz.

Konpultsa soilik Udal Erregistroan aurkeztutako dokumentuekin egingo da, *edo udalak berak egindako dokumentu adminstratibo publikoak*, eta beti jatorrizkoarekin alderatu ondoren. Agiri horiek Udalean bertan tramitatzeko izan daitezke edo baita beste administrazio eskudun batzuetara bidaltzeko ere, baldin eta beste administrazio horiekin «leihatila bakarraren» hitzarmena sinatuta badu. Udaletik datozen dokumentuak edo Udaleko bulegoetan jasota daudenak ere konpultsatu ahal izango dira.

59. artikulua. Agiria egitea.

Dokumentuen konpultsa UDATE Zerbitzuan egingo dira, unean bertan, baina Udal Korporazioko idazkari nagusiak, aldezturik, eskuordetzea eman ondoren.

Baliteke unean bertan zerbitzua ez ematea, konpultsatu beharreko kopiak asko badira.

Hirugarren azpiatala. Hitzordua eskatzea

60. artikulua. Hitzordua eskatzea.

Udalaren oinarritzko helburua honako hau izango da: Tolosako Udalarekiko harremanetan herritarrei ahalik eta aholkularitza eta informazio zabalena ematea, UDATE Zerbitzuaren bitartez.

Hala ere, gerta daiteke eskaera batzuk udal teknikarien edo Korporazioko kideren baten arreta behar izatea, bai zailtasunagatik, bai berezitasunagatik, bai duten izaeragatik. Halakoetan, UDATE Zerbitzuak administratuko ditu partzialki haien agendak, eta bilera egiteko eguna, ordua eta lekua emango ditu.

Laugarren azpiatala. Sarrera erregistroa

61. artikulua. Deskribapena.



TOLOSAKO
UDALA

Sarrera-irteera erregistroa bide ofiziala da, erakundearen edozein motatako informazioa edota dokumentazioa jasotzeko edo emateko.

Udate Zerbitzua da Sarrera erregistroaren arduraduna eta, horretaz gain, bere ardurapean egongo da erregistroko liburuetan oharrak jasotzea, erantsitako agiriak eskaneatzea eta liburuak edukitzea eta kudeatzea.

Irteera-Erregistroa era deszentralizatuan kudeatuko du Sail bakoitzak.

Bosgarren azpiatala. -Jasotako eta bidalitako posta jasotzea eta banatzea

62. artikulua. Deskribapena.

Udate Zerbitzuaren ardura da posta eta paketeak jasotzea eta banatzea, baldin eta Zerbitzuetako langileen presentzia edo sinadura beharrekoa ez bada.

Bestetik, postetxera eramango du eta bertan kudeatuko du udaletxetik ateratzen den posta.

Seigarren azpiatala.- Argitalpen eta planoen banaketa eta salmenta

63. artikulua Argitalpenen eta planoen banaketa eta salmenta

Herritarrei arreta hobea emateko, UDATE zerbitzuak izango ditu Udalak argitaratutako argitalpen eta planoak, behar dituenari emateko, betiere dagokion tarifa ordainduta.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa. Tolosako Udalak Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan behar diren langileak jarriko ditu, lanpostuak hornitzeko indarrean dagoen legerian xedatuta dauden prozesuen bitartez. Era berean, Udaleko lanpostu-zerrendan egin beharreko egokitzapen guztiak ere egingo dira. Edozein kasutan, langile horiek prestakuntza zehatza eta egokia jasoko dute, ordenantza honetan bildutako funtzioak betetzeko eta zerbitzua behar den moduan ezartzeko.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa. Ordenantza hau indarrean egongo da, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 65.2 artikuluan xedatutako hamabost eguneko epea igaro ostean, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.



TOLOSAKO
UDALA

Bigarrena. Hala ere, egiten ari den barne antolakuntzako prozesua amaitzen denean ezarriko da ordenantza honen aplikazio eraginkor osoa, orduan egongo direlako prest Herritarrentzako Arreta Zerbitzua erabat eta eraginkortasunez jartzeko behar diren bitarteko pertsonalak, materialak eta teknologikoak.

Hirugarrena. Lege-aldaketetara egokitzeko gaikuntza.

Alkatea gaitzen da, araudi honetako xedapenetan derrigorrean aplikatu beharreko lege-aldaketei bakarrik erantzuten dien eta zenbateko edo ehunekoen eskakizunen aldaketa edo egokitzapen automatikoa dakarren edozein aldaketa-mota sartzeko, eta horren berri berehala emango zaio osoko bilkurari, berretsi dezan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du**, hasieraz, Tolosako udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (UDATE) arautzen duen Ordenantza.

9. 2019 urterako taxien tarifak berrestea.

9. Ratificación de las tarifas de taxi del 2019.

Parte-hartzeak:

Alkatea: *“Egia esan azken urte hauetan taxien tarifak ez dute aldaketarik izan, bere horretan mantendu dira. Aurtengoan aldaketa bat dago: proposatu da %2,3ko igoera. Hau erabaki ahal izateko Eskualdean taxi zerbitzua ditugun herriak, Alegi, Tolosa, Villabona eta Zizurkil Taxiilarien elkartearekin, Agitaxekin, egin dugu bilera aurkeztu dute proposamena aztertzeko. Azken urte hauetan krisia dela eta ez dela, igoerarik planteatu ez duten arren mahai gainean jarri zuten, bai erregaia dela, aseguruua edo lan ordu kopuruarengatik igoera nabarmena izan dutela kostuaren aldetik eta oreka behar duela zerbitzuak. Aurkeztu dute egoera ekonomikoa eta kontuhartzailleak begiratu du, beraz, bileran bertan, batzorde txiki horretan onartu zen proposatzen dena, hau da, taxien tarifak %2,3ko igoera hori gauzatzea.”*

Batzarkideei aurkeztu zaie Gobernu Batzarrak, azaroaren 26an, hartu zuen erabakia eta Ogasun Batzordeak 2018ko azaroaren 27ko diktamena: aho batez berrestea Gobernu batzarrak hartutako erabakia.

Erabakiak honela dio:



TOLOSAKO
UDALA

- **2019 urterako taxien tarifen onarpena.**

Agitax Taxi Elkarteak 2019 urterako Tolosaldeko taxi tarifen proposamena aurkeztu zuen Tolosaldea Garatzen S.A.n.

Proposamen horren baitan, datorren urteko tarifak kalkulatzeko aurtengoei %2,3ko igoera aplikatzea eskatu zuten.

Tolosako udaletxean, 2018ko irailaren 26an, Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak bildu ziren Agitax Taxi Elkarteak 2019 urterako aurkeztutako tarifa proposamenak aztertzeko.

Hori horrela, Udal Teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren eta Udal Kontuhartzaileak egindako txostenean jasotakoa kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- *Onartzea 2019 urterako 2018 urteko tarifei %2,3ko igoera aplikatzea. Ondorioz 2019ko taxi tarifak honela geldituko dira:*

- *I Tarifa (lanegunetan 7etatik 22tara):
Gutxieneko tarifa: 4,1993 euro
Kilometroko: 1,0309 euro
Itxarote ordua: 18,6929 euro*
- *II Tarifa (lanegunetan 22etatik 7etara eta larunbata, igande eta tokiko normatibak araututako jaiegunetan 7etatik 22tara):
Gutxieneko tarifa: 4,7393 euro
Kilometroko: 1,5683 euro
Itxarote ordua: 27,5355 euro*

BIGARRENA.- *Erabakia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailari bidaltzea.*

HIRUGARRENA.- *Tolosaldea Garatzen, S.A., entitateari akordioa jakinaraztea tramitatzeko.*

LAUGARRENA.- *Tolosako udalbatza plenoaren aurrean gaia azaltzea eta azken organo honek berretsi ditzala tarifak.*



TOLOSAKO
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2019ko urterako taxien tarifak berrestea.

- | | |
|--|---|
| <p><u>10. Emendakina jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta aprobetxamendu bereziari dagokion tasen ordenantza fiskalen 2019rako aldaketaren hasierako onarpenari.</u></p> | <p><u>10. Enmienda a la aprobación inicial de la modificación de la ordenanza de las tasas por ocupación del dominio público municipal para el año 2019.</u></p> |
|--|---|

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia, Ogasun zinegotzia: "Emendakin honekin ordenatu nahi dugu jaietan bai Sanjoanetan, bai Iñauterietan eta, baita ere, auzoetako festetan jabari publikoaren erabilerari dagokion tasa arautzea eta ordenatzea. Orain arte, ordaintzen zen prezio edo tasa Feriariaren Elkartearekin adostuta eta hori zuzendu egin nahi dugu. Azterketa egin ondoren, proposatzen dugu bi tarifa ezberdin, diktamenean azaltzen den bezala., batetik prezio bat ordaindu behar dana udalarekin lortzen bada adostasun batera eta prezio bat postuak edo feriantek ordaindu beharko zutena adostasun batera iristen ez bagara. Adostasuna iristeko eskatzen zaiguna da Kultur departamentuarekin, gehienbat tiket eta salneurrien prezioa adostea, baita ere Iñauterietan eta Sanjoanetako jaietan atrakazioen aur aurreikuspena edukitzea eta noski baimendutako egunak eta ordainketako epeak."

OGASUN BATZORDEAREN 2018KO AZAROAREN 27KO IRIZPENA.

Udalbatzak 2018ko irailaren 25ean, Ohiko Osoko Bilkuran, 2019rako Jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta aprobetxamendu bereziari dagokion tasaren ordenantza fiskalaren aldaketaren hasierako onarpenaren aurka emendakin bat tratatu da, 2.2.8. eranskina aldatzeko.

Aldaketaren helburua da, jaietan eta ferietan jabari publikoa erabiltzeari dagokion arloa arautzea.

Orain arte, Iñauterietan eta San Joan jaietan erabilerari dagokion tasa Feriariaren Elkartearekin adostu egin da.

Egoera hori zuzentzeko, beharrezkoa ikusi da:

- tasa guztiak benetazko erabileraren arabera aplikatzea



TOLOSAKO
UDALA

- tarifen murrizketa aplikatzea, jaietan postuak, jolas-parkeek eta atrakzioek bere lekua izan dezaten bermatzeko.

Hori dela eta, ondorengo aldaketa proposatu da:

-Tarifa taularen aldatzea, hau honela utziz

| | POSTUAK HERRIKO JAIETAN ETA FERIETAN | PUESTOS EN FERIAS Y FESTEJOS POPULARES | EUROAK 2019 |
|-----|---|--|----------------|
| 1. | Taberna, kafetegi eta antzerakoak (m ² edo zatikia, eguneko) | Bares, cafés y similares (por m ² o fracción y día) | 9,15 |
| 2. | Txurrotegi eta txokolategiak eta ore frijituko mahaiak:(m ² edo zatikia, eguneko) | Churrerías y chocolaterías y mesas de masa frita (m ² edo zatikia, eguneko) | 6,35 |
| 3. | Pastelak, gozokiak, fruta sikuak, patata frjituak, bisuteria, jostailuak, liburuak, etab. Saltzeko txosnak(m ² edo zatikia, eguneko) | Casetas de venta de pasteles, caramelos, dulces, frutos secos, patatas fritas, bisutería. Juguetes, libros etc.(por m ² o fracción y día) | 6,35 |
| 4. | Jaietako edonolako artikuluak saltzeko saltokiak (m ² edo zatikia, eguneko) | Puestos de venta de artículos festivos de todo tipo (Por m ² o fracción y día) | 19,80 |
| 5. | Tiro txosnak eta antzeko jokoak (m ² edo zatikia, eguneko) | Casetas de tiro al blanco, anillas y juegos varios (por m ² o fracción y día) | 2,00 |
| 6. | Tonbolak, zozketak, salmenta arinak eta antzekoak (m ² edo zatikia, eguneko) | Tómbolas, rifas, vetas rápidas y similares (por m ² o fracción y día) | 4,50 |
| 7. | Zabuak, tresna hegalaria, kalesitak zaldiko-maldikoak, bunperrak eta, oro har, mugitzen diren era guztietako aparailuak (m ² edo zatikia, eguneko) | Columpios, aparatos voladores, calesitas, juegos de caballitos, bumpers y, en general, cualquier clase de aparatos de movimiento (por m ² o fracción y día) | 2,00 |
| 8. | Auto-txoke pistak (m ² edo zatikia, eguneko) | Pistas de autos de choque (por m ² o fracción y día) | 2,00 |
| 9. | Ikuskizun eta antzerkiak(m ² edo zatikia, eguneko) | Espectáculos y teatros (por m ² o fracción y día) | 2,50 |
| 10. | Zirkoak | Por m ² o fracción y día | |
| | Kultur Departamenduaren adostasunarekin | Circos | |
| | Kultur Departamenduaren adostasunarik gabe | Con acuerdo del Departamento de Cultura | 286,00 |
| | | Sin acuerdo del Departamento de Cultura | 694,10 |
| 11. | Iñauteriak eta San Juan jaietan, udalaren adostasunarekin (m ² edo zatikia, eguneko) | En Carnavales y San Juan, con acuerdo del ayuntamiento (por m ² o fracción y día) | 0,40 |
| 12. | Auzoetako jaietan, udalaren adostasunarekin (m ² edo zatikia, eguneko) | En fiestas de los barrios, con acuerdo del ayuntamiento (por m ² o fracción y día) | 1,25 |
| 13. | Gabonetako karrusela | Carrusel en Navidad | 150,00 |

- Aplikazio arauetan bi puntu berri sartzea, hirugarrena eta laugarrena, ondorengo testu honekin:

3. Iñauteriak eta San Joan jaietan, udalaren adostasuna gutxienez ondorengo puntuetan izan beharko du:



TOLOSAKO
UDALA

- baimendutako egunak
- ordainketa epea
- tiket eta bonoen salneurria
- San Joan jaietako atrakzioen aurreikuspena

4. Auzoetako jaietan, udalaren adostasuna gutxienez ondorengo puntuetan izan beharko du:

- baimendutako egunak
- ordainketa epea
- tiket eta bonoen salneurria

Gaia aztertu ondoren, batzordeak aho batez diktaminatu du goran aipatzen diren al-daketak onartzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta aprobetxamendu bereziari dagokion tasen ordenantza fiskalen 2019rako aldatzeko emendakina.

11. Onartzea Tolargi S.L. enpresak pabiloia erosteko eskatutako mailegua. **11. Autorizar el préstamo solicitado por Tolargi, S.L. para la compra del pabellón.**

Parte-hartzeak:

... Alkatea: *"Bere garaian lehiaketaren bidez alokairuan hartu zuen Tolargik pabeiloia Usabal poligono industrialean erosketara aukerarekin: Orain erosketara hori gauzatzeko 225.005,00 euroko mailegua eskatzea proposatzen da, 15 urteetara. Aukera egokiena Kutxabank-enekoa izan da.*



TOLOSAKO
UDALA

Tolargiko Administrazio kontseiluak, 2018ko azaroaren 27an, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

"2.- Usabalgo pabeloiaren erosketa aukera gauzatzea eta mailegua eskatzea.

2016ko azaroaren 14an Tolargi, S.L, entitateak Luengo y Lopez, S.A, enpresarekin ondorengo deskribapena duen pabeloiaren arrendamendua erosketa aukera gauzatzeko eskubidearekin sinatu zuen:

"Pabellón industrial en la parcela D-7-B, en el polígono Usabal-Sur de Tolosa, inscrito en el tomo 1672, libro 258, folio 55, finca 12709".

Kontratua 2018ko abenduaren 1ean bukatzen da eta ez da luzagarria.

Tolargik erosketa aukera gauzatu nahi du eta jabetza ados dago.

Dena den, atzerapena egon da ustez kutsagarri izan zitezkeen lurren deskatalogazioa lortzeko . 2018ko azaroaren 16an, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ebazpena eman du deskatalogazioa ebatziz.

Beraz, hau kontutan izanik, kontseilari guztiak ados daudelarik

ERABAKI DA:

Lehena.- Aipatutako pabeloiaren erosketa aukera gauzatzeko epea luzatzea, abenduaren 21 baino lehen eskritura publikoan formalizatzeko aukera ahalbideratzeko.

Pabeloia kargaz libre eta zergak eta gastuak eguneratuta erosiko da. Prezioa: 320.000+BEZA.

Bigarrena.- Osoko bilkurari eskatzea mailegua onartzea erosketa aukera gauzatzeko. Izan ere, Tolargi, S.L, enpresak aztertu du mailegu egokia izan zitekeena. Horrela, kudeaketa egin ondoren ebatzi du, ondorena dela abantaila handiena duena. Beraz, Plenori ezaugarri honetako mailegua onartzea eskatzea:

Kutxabank entitatearekin, mailegua: 225.005 (70%). Epea:15 urte. Irekiera komisiorik gabe. Interes Tasa: Hiruhilabeteko Euribor+0,64%. Amortizazio komisioa: Ez. Kantzelazio komisioa: Ez. Subrogazio komisioa: Ez.



TOLOSAKO
UDALA

Hirugarrena.-Erosketa eskubidea gauzatzea, kargaz libre eta gastu eta zergan eguneratuta, ondorengo pabeiloia erosiz:

“URBANA.- Pabellón industrial en la parcela D-7-B, en el Polígono Usabal-Sur de Tolosa, hoy identificada con el número cuatrocientos dos.

Consta de una sola planta. Ocupa una superficie de cuatrocientos cuarenta y nueve metros y cuarenta y tres décímetros cuadrados, teniendo treinta y cinco metros y veinticinco centímetros de largo por doce metros y setenta y cinco centímetros de ancho.

Linda: Norte, finca de Doña Esther Estibaliz, actualmente de Ubare Soldadura, S.L.; Sur, con finca de Don Antonio Muñoa; Este, con terrenos de dominio público; y Oeste, con parcela D-6.

TITULO.- *Adquirió la mercantil “Luengo y Lopez, S.A.” el pleno dominio de la finca descrita, por compra a la mercantil “Explotaciones Usabal, S.A.”, mediante escritura otorgada en Tolosa, ante su Notario Don José Manuel Domingo Serrano, el día 30 de diciembre de 1992, con el número 1.797 de protocolo.*

INSCRIPCIÓN.- *Registro de la Propiedad Nº 1 de Tolosa al tomo 1.672, libro 258, folio 55, finca 12.709, inscripción 6ª.”*

Prezioa: 320.000 euro+BEZa.

Laugarrena.-*Erosketa aukera gauzatzea Tolargiko Lehendakariari ahalmenak emanez behar diren dokumentuak eta ekintzak sinatzeko eta exekutatzeko.(Mailaguaren sinatura barne).”*

Beraz, kontutan izanik Kutxabank izan dela prestamuaren ezaugarri onenak eskaini dituen, Ogasun Batzordeak 2018ko azaroaren 27an diktaminatu du Kutxabank dela mailegu onena eskaintzen duena eta Tolargi, SL, enpresak egindako eskaera onartzearen alde agertu da.

Ondorioz, Udalbatzak, aho batez, beti ere korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutuz,

ERABAKI DU

Lehena.- Onartzea Tolargi, SL, enpresak eskatu duen mailegua goian aipatu den erosketa gauzatzeko eta, berez, onartzea epe luzerako mailegu operazioa sinatzea karentziarik gabe.



TOLOSAKO
UDALA

Ezaugarriak hauek dira:

Kutxabank entitatearekin, mailegua: 225.005 (70%). Epea: 15 urte karentziarik gabe. Irekiera komisorik gabe. Interes Tasa: Hiruhilabeteko Euribor+0,64%, hiruhilabeteko errebisioa eta hileko kuota konstantea. Amortizazio komisioa: Ez. Kantzelazio komisioa: Ez. Subrogazio komisioa: Ez.

Bigarrena.- Behar duen dokumentuak eta ekintzak exekutatzeko Tolargi, SL, enpresako Lehendakariari ahalmena ematea.

Hirugarren.- Foru Aldundiari eta Kontuhartzaitzari erabaki honen berri ematea.

| | |
|--|---|
| <u>12.2018/2023 (2018/14 kreditu gaikuntzak), 2018/2032 (2018/15 kreditu transferentziak) eta 2018/2033 (2018/16 kreditu gehigarriak) dekretuen jakinarazpena.</u> | <u>12.Dar cuenta de los decretos de Alcaldía 2023/2018 (habilitación de credito 14/2018), 2032/2018 (15/2018 transferencia de crédito) y 2033/2018 (16/2018 crédito adicional).</u> |
|--|---|

Parte-hartzeak:

Begoña Tolosa Mendia (Ogasun zinegotzia): “Hemen hiru kreditu aldaketa daukagu. Hamalaugarrena kreditu gehikuntza modalitatekoa da, 299.007,84 €koa eta hau da, urtero Lanbidetik zuzentzen zaigun dirua enplegu sustapenerako. Hamabosgarren kreditu aldaketa kreditu transferentziakoa da, kasu honetan 22.324,00€koa. Hemen jaso genituen bi eskaera, bat Merkataritza eta bestea Informatika departamentutik diru kopurua pasatzeko partida batetik bestera. Hamaseigarren kreditu aldaketa, berriz, gehigarri modalitatekoa da. Kasu honetan 252.481,00 €koa, finantziario gerakinetatik etorriko da. Hemengoak dira hainbat departamentutik egindako eskaerari aurre egiteko. Batzuk, aipatzekoetan Ogasun batzordean denon aipatu baziren ere: brigadako makinak eta arropak, 1.945,75 Orain dela gutxi pleno areto honetan aurkeztu zen liburua argitaratzeko 30.000 euro; Alberto Letamendiren obra egiteko 7.000,00 euro; jaiotza konpontzeko 9.000 euro, Tolosako gurasoen hizkuntzaren ohiturak aztertzeko 13.825€, bestelako hainbat hornidurak bide publikoetarako 45.000 euro eta gero hainbat gastu txikiak, azkenean, batura 252.481,00 euro osatu arte.”

OGASUN BATZORDEAREN 2018KO AZAROAREN 27KO IRIZPENA.

Lehedakariak, 2018ko aurrekontuari dagozkion 14, 15 eta 16. kreditu aldaketarako espedienteen kontu eman du.



TOLOSAKO
UDALA

Hamalagarren espedientea kreditu gaikuntzen modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak hauek dira:

2018ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena

| Gastuen partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|--|--|-------------------|
| 1 1100.422.01.241.00 2018 | TRANSFERENTZIA UDALEI. ENPLEGU SUSTAPENA | 25.000,00 |
| 1 1100.471.01.241.00 2018 | DIRULAGUNTZAK. ENPLEGUAREN SUSTAPENA. | 274.007,84 |
| GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA | | 299.007,84 |

2018ko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa

| Kod. | Sarrerren partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|-----------------------------|-------------------|---|-------------------|
| a | 2 410.02 2018 | EUSKO JAURLARITZAREN ENPRESEN TRANSFERENTZI ARRUNTAK | 299.007,84 |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | | | 299.007,84 |

Hamabostgarren espedientea kreditu transferentzien modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak hauek dira:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---------------------------|------------------------------------|--------------------|------------------|--------------------|
| 1 1100.227.99.431.00 2018 | KONTRATUAK. MERKATARITZA | 72.500,00 | 7.324,00 | 65.176,00 |
| 1 0300.226.99.920.20 2018 | BESTE HAINBAT GASTU INFORMATIKA | 33.000,00 | 15.000,00 | 18.000,00 |
| GUZTIRA | | 105.500,00 | 22.324,00 | 83.176,00 |

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---------------------------|------------------------------|--------------------|------------|--------------------|
| 1 1100.226.06.431.10 2018 | JARD.SOZIO KULTURALAK. FERIA | 148.162,94 | 7.324,00 | 155.486,94 |



TOLOSAKO
UDALA

| | | | | |
|---------------------------|---|-------------------|------------------|-------------------|
| | ETA AZOKAK | | | |
| 1 0300.626.01.920.20 2018 | INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK. INFORMATIKA | 22.000,00 | 15.000,00 | 37.000,00 |
| GUZTIRA | | 170.162,94 | 22.324,00 | 192.486,94 |

Hamaseigarren espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak hauek dira:

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---------------------------|--|------------|-----------|----------------|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0700.623.01.153.20 2018 | MAKINERIA. BIDE PUBLIKOAK | 5.110,00 | 7.286,00 | 12.396,00 |
| 1 0700.622.02.920.31 2018 | ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDURAKO ERAIKINAK | 631.150,00 | 57.708,00 | 688.858,00 |
| 1 0900.623.01.323.20 2018 | MAKINERIA. SAMANIEGO IKASTETXEA | 0,00 | 550,00 | 550,00 |
| 1 0800.226.06.334.10 2018 | JARD.SOZIO KULTURALAK. KULTURAREN SUSTAPENA | 198.330,00 | 30.000,00 | 228.330,00 |
| 1 0800.625.03.330.00 2018 | KULTUR EKIPAMENDUA. | 15.000,00 | 7.000,00 | 22.000,00 |
| 1 1100.226.08.172.00 2018 | INGURUMEN JARDUERAK. INGURUMENA | 70.700,00 | 5.000,00 | 75.700,00 |
| 1 0900.227.07.335.10 2018 | AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK.EUSKARA | 11.000,00 | 13.825,00 | 24.825,00 |
| 1 0800.201.01.338.00 2018 | ERAIKINEN ALOKAIURUAK. JAIK | 84.000,00 | 10.000,00 | 94.000,00 |
| 1 0900.481.01.335.10 2018 | IRABAZI ASMORIK GABEKOAK.EUSKARA | 333.748,56 | 200,00 | 333.948,56 |
| 1 0700.625.99.153.40 2018 | EKIPAMENDUA. ZERB.OROKOR.LANTALDEA | 50.236,00 | 13.462,00 | 63.698,00 |
| 1 0700.221.05.153.40 2018 | JANTZITERIA. ZERB.OROKOR.LANTALDEA | 4.000,00 | 1.470,00 | 5.470,00 |
| 1 0800.211.01.333.10 2018 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.LEIDOR | 17.500,00 | 3.280,00 | 20.780,00 |
| 1 0700.221.99.153.20 2018 | BESTELAKO HORNIDURAK.BIDE PUBLIKOAK | 140.000,00 | 45.000,00 | 185.000,00 |
| 1 0700.211.01.920.31 2018 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.ERAIKIN PUBLIKOAK | 46.000,00 | 31.000,00 | 77.000,00 |
| 1 0800.227.04.333.10 2018 | KONTRATU SOZIOKULTURALAK.LEIDOR | 170.500,00 | 11.500,00 | 182.000,00 |
| 1 0800.481.01.337.20 2018 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK.GAZTERIA | 17.000,00 | 3.200,00 | 20.200,00 |
| 1 0100.226.99.912.00 2018 | BESTE ZENBAIT GASTU.GOVERNU ORGANOAK | 20.112,00 | 8.000,00 | 28.112,00 |
| 1 1100.226.06.431.10 2018 | JARD.SOZIO KULTURALAK. FERIA ETA AZOKAK | 155.486,94 | 4.000,00 | 159.486,94 |



| | | | |
|----------------|--------------|------------|--------------|
| GUZTIRA | 1.969.873,50 | 252.481,00 | 2.222.354,50 |
|----------------|--------------|------------|--------------|

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|-----------------------------|----------------|--------------------------------------|-------------------|
| a | 2 870.01 2018 | DIRUZAINZA GERAKINA, GASTU OROKORRAK | 252.481,00 |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | | | 252.481,00 |

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

13. 2018ko aurrekontuaren 3. hiru hilabeteko exekuzioa berri ematea. 13. Dar cuenta de la ejecución del presupuesto del tercer trimestre del 2018.

Jarduneko Idazkariak 2018ko aurrekontuaren hirugarren hiruhilabetekoaren exekuzioaren berri eman du.

OGASUN BATZORDEAREN 2018KO AZAROAREN 27KO IRIZPENA.

21/2003 Foru Arauaren 64. artikulua ezarritakoari jarraituz, Kontuhartzaileak 2018ko aurrekontuaren hirugarren hiruhilabetekoaren exekuzioari buruzko ondorengo dokumentuak aurkeztu ditu:

- Sarrerak, kapituluka eta partidaka
- Gastuak kapituluka, kontzeptuka eta organuka

Aurreko hilabeteetan informazioa aurkezteko erabili ziren egitura berdineko dokumentuak erabili dira, Udaltzat bestea informaziorik eskatzen ez duen bitartean.

Iñaki Irazabalbeitiak galdetu du zergatik dagoen hainbeste aldea sarreretan aurreikusitakoaren eta bildutakoaren artean, hainbat kapitulutan.

Arrazoi desberdin aipatu dira:

- kontabilizatu gabeko mugimenduak egon daitezke
- zergen kasuan, alde batetik jarduera ekonomikoen gaineko zerga azaroa arte ez da kobratzen, eta bestetik hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga ez da ari likidatzen departamentuaren egoerarengatik.



- tasei dagokionean, bide publikoaren okupazioaren likidazioak atzeratuta daude, eta tasa batzuk ikasturtekoak dira eta zati handi bat laugarren hiruhilabetean kobratzen dira.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

14. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko urriaren 1etik 31era. (2018/1.864 – 2018/2.054). **14. Notificación de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 31 de octubre de 2018 (2018/1.864-2018/2.054).**

Alkatetzak 2018ko urriaren 1etik 31ra bitartean (2018/1864-2018/2.054) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

15. Orixeko institutuaren eraikuntza ahalik eta azkarren hastea eskatzeko mozioa. **15. Moción para solicitar la pronta construcción del Instituto Orixeko.**

- ... Alkateak hitza eman die bertaratu diren Orixeko institutuko zuzendari eta Gurasoen ordezkariari. Parte-hartzea DVDan jasotako dago espedientean.
- ... Jarraian, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Orixeko institutuko ordezkariak garbi azaldu dute asmoa eta helburua eta gure iritzia ahalik handiena egin behar dugula kontratazio espedienteak azkartzeko. Are gehiago, badakigunean kontratazio espedientean atasku bat dagoela kontratazio lege berriak jartzen dituen arazo guztiekin eta hau premiazko prozedura batera abiatzea, baldintza batzuk bete behar dira, premia hori justifikatu behar da. Justifikatu beharko litzateke eraikinaren egoera txarra eta horretarako teknikariak egin behar du txostena, Hezkuntza Sailaren teknikariak printzipioz. Baina bai eskatuko genuke ikusten bada Hezkuntza sailak urrats hori behar bezain azkar ematen ez duela ea udal teknikarien bitartez egin daitekeen hori. Larrantasun hori nolabait abian jartzeko herriko alkateak dauka azken hitza, agindu batez bidez, Teknikarien txostenak horrela eskatuko balu, beti ere. Beraz, badakigu Hezkuntza sailak mila arazo izango dituela eta gaurtik aurrera bat gehiago. Gauza hauek izango duen lehentasuna segurasko baina udalarentzat lehentasun handiagoa. Agian udaletxe honek presio eginez eta gero baliabide propioak jarrita.”*
- ... Alkatea: *“Egia da, eraikin berriaren aurreikuspen hori egina daukela. Legealdi honetan erabat gabiltza elkarlanean, bai Orixeko institutuko zuzendaritzak, bai Guraso ordezkariak Hezkuntza delegazioarekin batera. Izan ditugu bilerak Jaurlaritza bertan. Orain dela gutxi egon ginen denok elkarrekin Hezkuntza*



TOLOSAKO
UDALA

delegaritzan eta asmoa da ahalik eta bizkorren ikasleak eraikuntza zaharretik atera eta behin behingoz beste azpiegituran kokatzea. Aipatu da urgentziazko prozedura, izan ere urgentziazko prozedura horren berri eman ziguten Delegaritzan izan genuen bilera horretan, bertako teknikariak gainera. Egia da, hori gauzatu ahal izateko eta agindu hori emateko udalak erabat justifikatutako txostena beharko genukeela. Beti izan da Tolosako udala bidelagun legealdi guztietan eta konpromisoa, lehen izan genuen bezala, berresten dugu, gure esku dagoen guztia egitea ahalik eta egokien egiteko kudeaketa guztia.

Iñaki Irazabalbeita Fernandezek, EHBilduko zinegotziak mozioa irakurri du:

Mozioak honela dio:

"Tolosako Orixe institutuaren eraikinak bertan eskolak emateko baldintza minimoak ez dituela betetzen gauza jakina da. Eraikin berri bat beharrezkoa da eta horrela jasotzen da Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailaren 2014-2018 inbertsio-planean.

Eraikin berria oraingoa dagoen tokian bertan egingo da. Hortaz, eraikuntza-fasean zehar ezingo da bertan eskolarik eman. Epe horretan, eskolak emateko behin-behineko azpiegiturak prestatuko dira: DBHko ikasleek Gorosabel eraikinean eta ondoan kokatuko diren modulu aurrefabrikatuetan jasoko dituzte eskolak eta batxilergoek Paper Eskolan eta ondoan kokatuko diren modulu aurrefabrikatuetan.

Bestetik, 2016ko ekainaren 28ko osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailari eskakizun hau egin zion:

"Udalak, udalaren eskumen-esparruaren baitan dauden urrats eta eginkizun guztietan, bere esku dagoen guztia egingo du Orixe institutuko eraikin berriaren proiektua errealtate bihur dadin ahalik eta /asterren.

Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailari eskatzen dio egutegi zehatza egin dezala, non egin beharreko urrats guztiei klarki egikaritze-data ipintzen zaien, Orixe BHI institutuko eraikin berria obra 2018an zehar has dadin beranduen. Halaber, eskatzen dio egutegia 2016ko uztailaren 31rako egina egon dadin eta Orixe Institutuko eta udaleko arduradunei helaraz diezaien."

Egun agerikoa da eraikinaren eraikuntza ez dela 2018an hasiko. Alabaina, ahalik eta azkarren hastea komeni da, oraingo eraikinaren egoera egunetik egunera okerragora doalako. Orixeiko hezkuntza-komunitatearen nahikunde da 2019-20 ikasturtearen hasieran eskolak behin-behineko instalazioetan ematen hastea eta eraikin berriaren eraikuntza 2019ko udazkenean abiatzea.

Nahikunde hori bete ahal izateko bi lanak lehiaketa publikora atera behar ditu Eusko Jaurlaritzaren dagokion organoak. Ez litzateke bidezkoa izango lehiaketa-



TOLOSAKO
UDALA

prozedura luzatzearen ondorioz Orixe institutuko ikasleek 2019-2020 ikasturtea oraingo erakinean egin behar izatea.

Hori guztia aintzat hartuta Tolosako udalak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailari eskatzen dio:

Orixe institutuko behin-behineko instalazioak prestatzeko eta eraikin berria eraikitzeko kontratazio-prozedurak ahal den bezainbat azkar ditzala, ikasleek 2019-20 ikasturteko eskolak behin-behineko instalazioetan hasi ahal izan dezaten."

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Orixe institutuaren eraikuntza ahalik eta azkarren hastea eskatzeko mozioa.

Alkatea adierazi du gai zerrendako 16 eta 17 puntuak, bat, abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko egunekoa eta, bigarrena, azaroaren 25eko mozioa, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna, azaroaren egitekoa zen bilkura abendura atzeratu denez, bi mozioak publikoki prentsaurreko baten bidez irakurri zituztela hiru alderdiek eta zuzenean bozketara jarriko direla.

16.2018ko euskararen nazioarteko egunerako adierazpen instituzionala. **16. Declaración institucional con motivo del día internacional del euskara.**

EUSKARA BATZORDEAREN 2018KO AZAROAREN 27KO IRIZPENA.

2018KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA
BIZI. PREST

Egunero delako euskararen aldia

Bizi. Prest.



Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz. Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest.

Etxean bizi-bizi, kalean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala; lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.

Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan dadin. Prest gaudelako euskarari gure hitzen hegoak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegaldada dadin, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzatzen ez dena baita euskara eskas bakarra.

Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakarra.

Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko. Ingurune guztietan. Eginkizun orotan.

Natural-natural. Bizi-bizi.

Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza. Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon errotutako ohiturak aldatzea eskatzen digu. Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu.

Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu.

Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tartea gainditzeko jokaera aktiboa. Eta etengabea.

Euskararen erabileran egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarte-eraldaketa zabal sakona, neurri historikoa duena, gure gizartearen bilakabidean mugarri izango dena.

Eta, neurri horretako aldaketa guztien antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasun eta prestutasunarekin batera.

EUSKARAREN GIZARTEA. GIZARTEAREN EUSKARA

Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa. Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propiotik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilera eraginkortasunez areagotzeak ezinbestekoa duen adostasun zibil zabalaren osagai eta eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.

Baina aktibotasuna, praktikotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa. Izan ere, honezkero, ez da aski aldarrikapen hutsetan galtzea. Atzean utzi behar dugu beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain egotea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabilera hazkunde iraunkorraren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainetara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu eta erakunde publiko bakoitzak herritarrek euskaraz aritzeko duten eskubidea bermatzeko bitartekoak jartzen baditu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonal ugariaren eta erakunde publikoen betebeharraren batura.

Eta egin egingo dugu.



TOLOSAKO
UDALA

Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogoia prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz.

Euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

Elkarrekin.

Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz.

Elkarri euskara eskainiz.

Euskara bizi-indarrez sendoagotuz.

Bizi. Prest.

Egunero delako euskararen aldia.

EGUNERO DELAKO EUSKARAREN ALDIA

ERABAKIA

Tolosako Udalak, Tolosako herritarren ordezkari moduan, Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat egiten du eta Eusko Jaurlaritzak, hiru Aldundiek eta hainbat udalek adostutako adierazpen instituzionalarekin bat egiten du.

Aurtengo adierazpena estu lotuta dago Euskaraldia ekimenarekin; ostiralean hasiko da eta luzatu egingo da, hain zuzen ere, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen den egunera arte. "Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakarra", irakurri du.

Hiztunen aktibazioaren aldeko apustu horretaz gain, euskararen inguruko adostasuna aldarrikatu du testuak. "Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa", defendatu du.

DIKTAMENA

Euskara Batzordea 2018ko azaroaren 27an bildu ba eta proposamen hau Osoko Bilkuran onartzea erabaki du batzordekideen boto hauekin:

- Jokin Azkue ALDEKO BOTOA
- Maite Ruiz de Egilaz ALDEKO BOTOA
- Inaki Irazabalbeitia ALDEKO BOTOA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez,



TOLOSAKO
UDALA

Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2018ko euskararen nazioarteko egunerako adierazpen instituzionala.

17. A25eko mozioa: Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna **17. 25 de noviembre, Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres.**

BERDINTASUNA BATZORDEAREN 2018KO AZAROAREN 27KO IRIZPENA.

Azaroaren 14an, Berdintasun Departamentuak honako mozio-proposamena bidali zien Berdintasun Batzordeko kideei: *Azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna*. Bestalde, adierazi zitzaion 48 orduko epea zutela, ekarpenak eta zuzenketak egin zitzaion.

Epea bukatu da eta Berdintasun Departamentuak ez du ekarpenik jaso. Beraz, *Azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna* deituriko mozioa aztertu eta bozketara jarri ondoren, emaitza ondorengo hau izan da :

ALDEKO BOTOAK:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)
Joseba Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Onintza Lasa Arteaga (EH BILDU)

Hori ela eta, batzordekideek, diktaminatu dute mozioa bere horretan Osoko Bilkurara bidaltzea, azter eta onar dezan.

Mozioak honela dio:

AZAROAREN 25a EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta, Tolosako Udalak bere egiten du hiria indarkeria matxistarik gabeko gune gisa eraikitzeko ardura, eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du, indarkeria



TOLOSAKO
UDALA

mota horren adierazpen guztien kontrako lan irmoa egiteko. Azkeneko urteotan, zoritxarrez, Euskal Herrian indarkeria matxistak gora egiten jarraitu du. Ezin dugu ahaztu, bestalde, indarkeria honen adierazpen gehienak, egunero gertatzen direnak, gizartean normalizaturik daudela.

Hedabideak, publizitatea, telebista, hezkuntza eredia, emakumeen errepresentazio falta, emakumeak menderatzen dituzten genero estereotipo eta rolak, sinesmenak, praktikak eta jarrerak, besteak beste, injustuak eta emakumeak gutxiesten dituztenak, ordena sozialaren parte dira.

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek duten erreparazio-eskubidean. Erreparazio horrek **egiarako eskubidea dakar**; alegia, bizi izandako indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen kontaketa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak lehengoratzea eta pairatutako indarkeriaren inpaktuak sozialki aitortzea. Indarkeria matxista hauek bizi dituzten emakumeen kontaketak zalantzan jartzen direnean, haien hitza gutxietsia izaten da, zikindua, are gehiago, isilarazia. Halakoetan **biktimizazio bikoitza** gertatzen da: emakume biktimek jasandako minari lotsa eta erruduntasuna eransten zaizkie; bestaldetik, justifikatu egiten dira erasotzaileak.

Beraz, tokiko erakundeok gure egin behar dugu gizarte bat eraikitzean daukagun ardua sozial eta politikoa, gizarte horrek biktimen egiarako eskubidea bermatuko badu. Hori dela eta, Tolosako Udalak indarkeria matxistaren aurrean udal erantzunaren artikulazioa lantzen jarraituko du eta ahal duen heinean, Istanbulleko Hitzarmenaren markoa egokitu eta biktimen erreparaziorako toki-praktikak garatuko ditu.

Horregatik, Tolosako Udalbatzak bere jarrera berresten du, emakumeei indarkeria matxistarik gabe bizitzeko duten eskubidea berma dakien, eta konpromiso zehatz hauek hartzen ditu:

1.- Indarkeria matxistak ondorioz, emakume kaltetuarekiko erreparazio-eskubidearen aitortza eta horri buruzko prozesuetan emakumeei eta bere inguruko guztiei laguntza ematea, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak egiaztatzeke, eta indarkeria matxista ez errepikatzeke bermea izatea, guztiz osatu daitezen eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.

2.- Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako I. Udal Protokoloaren zerbitzuak hobetzen lagundu: protokolo beraren ebaluazioa egin eta erakundeen arteko



TOLOSAKO
UDALA

lankidetzeta, koordinazioa, eta emakumeei eta beren familiei arreta osoa hobetzeko eta babesik handiena eskaintzeko, ahalduz feminista eta banakako erreparazioak ikuspegi nagusi bezala harturik.

3.- Tolosako Udalak, emakumeentzat ahalbideratuko duen etxean bertan, besteak beste, emakumeentzako jabeak jarduerak, hainbat formazio eta zerbitzuen eskaintzak gehitu eta hobetzeko asmoz jarraituko du. Ildo horretan, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eta aitortza banakakoa nahiz kolektiboa lantzeko programa iraunkorrak antolatuko ditu, beti ere hauek hobetzeko asmoz, besteak beste, memoria historikoa berreskuratzea, omenaldi-ekitaldiak, memoria eta kontaktak jakinarazteko jardunaldiak, gazteekiko sentsibilizazio tailerrak, eta abar.

4.- Ikastetxeekin batera indartzen jarraitzea, batetik, Hezkidetzeta proiektua eta Mahaia, eta, bestetik, Beldur Barik eta Hi haiz, hi! programak, zeinetan agresio-mota guztiak saihesteko helburuaz, hauek sustatzen baitira: berdintasunean oinarritutako sexualitatea, nesken jabeak eta mutilen papera berdintasunezko harremanen alde.

5.- Elkarlanean, mugimendu feministarekin, adituekin eta indarkeria matxistatik irteerako emakumeekin eta kolektibo eta elkarteekin sare bat eginez jardun.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Azaroaren 25eko mozioa: Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna izeneko mozioa.



TOLOSAKO
UDALA

Gai zerrendatik kanpo Tolosaldeako lagun talde batek Tolosako udal batzarrean aztertzeko eta adierazten dena onartzeko eskaeraren berri eman da.

Gai zerrendatik kanpo aurkeztu den gaiaren premiatasuna bozketara jarri aurretik alkateak honako hau adierazi du: *"Premiatasunari dagokionez idatziak sarrera erregistroa azaroaren 28koa du. Beraz, gai zerrenda barruan joan beharko litzateke. Ez da sartu iritsi delako Alkatetzara beranduago, gai zerrenda jada osatuta zegoenenean, ez beste arrazoiengatik. Asmoa zenez Osoko bilkuran sartzea, eta garaiz sartu zutelako, uste dut gaiaren premiatasuna arrazoituta dagoela.*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak gehiengo absolutuz **onartu da** gaiaren premiatasuna.

Lore Agirre Zipitria, (EHBildu) irten egin da.

Oriol Junquerasekiko elkartasuna adierazteko mozioa

Parte-hartzeak

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu zinegotzia): *"Olatzek irakurri duena zenbait herritarrek sartutako idatzia da. Gutako askok ikusiko genuen sarri Tolosako kaleetan zehar Oriol Junqueras eta duela urte batzuk agian oraindik horren famatua ez zela zenbaitek ikusiko zuen nahiz aurpegia ezaguna izan arren ez zuen ezagutuko. Azken Kataluniako prozesu eta azkenengo zurrumbilo juridiko errepresio guztien ondorioz, Oriol desgraziez beste zenbati preso eta batera famatuak egin dira. Famatuak herriaren hitza aurrera eramatea jarri dutelako beraien buru eta beraien bizitzaren eta eskubideen ginetik. Eta eskubideen ginetik diogu, azken finean, gaizkituriko estatu demokratiko honek preso hartu dituelako eta beste zenbaitzuk preso ez erortzeko erbestera joan behar izan dutelako. Askok pentsatuko dute zer du Oriol Junqueras edo zer du bera eta Tolosan harreman dutena. Sinatzaileen artean badira batzuk aspaldi-aspalditik ezagutzen dutenak eta kasu batek, haur edo nerabe kanpaleku batzuetan, hamabost urteko mutikoa, euskararekin maiteminduta zegoena, katalana bera, Harreman horretatik urtero etortzen hasi zen eta bere kuadrilla berarekin batera etortzen hasi ziren Tolosara, tolosarrak Kataluniara, tartean zegoenetako bat Oriol bera zen. Oriol oraindik*



nerabea zela urteetako harremanen poderioz lagun egin dira. Bi herrien, Katalunia eta Euskal herriko harremana sarri esan dugu handia eta sakona dela. Berdinetik berdinerako elkartasun keinuak sarri egiten direla eta elkartasun keinu oinarria pertsonen arteko harreman zintzoa, maitasun harremanak eta laguntasun harreman sakonak. Eta hau da Oriol Tolosarekin lotzen duena eta horregatik hemendik zer gutxiago elkartasun keinu hori elkartasun keinu hori berarekin izatea. Horregatik argi eta garbi mozio hau babestuko dugu. Honekin batera iruditzen zaigu hirugarren puntua falta zaigula. Oriol berari espetsxean dagoen neurrian jakinaraztea mozioa hau onartu izan dela, non eta Tolosan. Iñauterietako bezperan Caldereroetan sarri eta sarri hemengo kaleetan saltu egin duen herriak hartzen duela erabaki hau eta zentzu horretan gure elkartasun guztia, bai berari eta berarekin dauden presoak eta baita, erbestera behar izan duten kide guztiakin. Kataluniarekin aldarrikatu izan dugu sarri eta gaur Oriol eta preso guztiakin horrela gaudela adierazi nahiko genuke. Eta hirugarren puntua erantsi, espetsxera helaraztea mozioa hau era batera edo bestera.”

... Alkatea: *“Ez da lehenengo aldia Katalunian herriaz hitz egiten dugula hemen osoko bilkuran. Egokia eta arrazoizkoa dela pentsatzen dugulako, guk ere, aldeko botoa emango diogu idatzari. Batetik pentsatzen dugulako gatazka politikoari irtenbide politikoa eman behar zaiola. Horren aldekoak gara, soberanismoa ere gatazka demokratikoan mantendu beharko litzatekeela. Gure iritziz bide judizialak eta inpulso politikoak Estatuko fiskaltzaren bidez ezin da oztopatu, herritarren eta agintari politikoaren adierazpen askatasuna. Estatu batek bide hori hartzen duena Beste hainbeste eskubideak urratuak izaten direlako. Guk hain zuzen ere, horren aurka gaude. Herritarrek edozein dela bere ideologia mutur batean eta bestean amaitu, askatasun osoa izan behar du bere ideia modu baketsuak eta oztoporik gabe azaltzeko. Bat gatoz 3. puntuarekin. Egia esan konturatu naiz idatzi hau sartu duten herritarrak ez daudela bertan eta aurkeztu dugun omentuan gai zerrenda ez zegoenez ez dutela jakingo. Eskatuko diegu baimena beraien idatzian beste puntu hori sartzeko eta horrela balitz ni ere bidaltzearen aldekoa izango nintzateke.” Berari helaraztea bertan onartu dela”*

Alkateak mozioa irakurri du. Honela dio:

“Kataluniatik Tolosara bisitari asko etortzen zaizkigu gure herriaz gozatzera. Bestalde, harreman historikoak egon dira tolosarren eta katalanen artean kulturaren esparruan zein beste batzuetan.

Harreman horien testuinguruan koka daiteke aspalditik urtero-urtero gure herrira Oriol Junqueras jauna, Generalitatearen lehendakariordea, etorri izana. 2018an huts egin du, ez da etorri, ez bere borondatez, baizik eta akusazio zentzugabe bat medio preso delako. Oriolen 'bekatua' herritarrei hitza ematea besterik ez da izan, demokrazia aplikatu nahi izatea hain justu.

Iruditzen zaigu. tolosar bezala ezin dugula isilik gelditu egoera horren aurrean. Gure herria estimatzen eta maitatzen duen Oriol kartzelan ikusteak



TOLOSAKO
UDALA

min egiten digu, tolosar eta lagun bezala. Tolosarrok Orioli gure elkartasuna adieraztea ezinbestekoa dela uste dugu. Oriolek kalean behar du egon, Espainiako justiziaz egozten dizkion kargu horiek guztietatik garbi gainera, demokrazian sakontzea ezin duelako inoiz delitu izan.

Elkartasuna Oriolen pertsonarengan irudikatzen badugu ere, elkartasun hori bera zabaltzen diegu gainerako exiliatu eta preso politiko katalanei.

Horregatik guztiarengatik Tolosaldeko herritar moduan Tolosako udalbatzari eskatzen diogu onar dezala Osoko bilkuran:

1 Oriol Junqueras jaunari Tolosako herriaren elkartasuna eta errespetua adieraztea, azpimarratuz beragan irudikatzen dugula gainerako preso politiko eta exiliatuekiko elkartasuna.

2. Bat egiten duela tolosarren nahiarekin eta espero duela Oriol gure artean berriz ere bisitari izatea ahalik eta eperik motzenean eta kargu guztietatik libre.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin eta Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Abstentzio botoa: Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu du** Oriol Junquerasekiko elkartasuna adierazteko mozioa.

18.Galderak eta eskaerak.

18. Ruegos y preguntas.

Partehartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): Egia esan ez nuen uste noizbait gai honetaz hitz egingo nuenik, baina fortunatu da ta hitz egin beharko dugu honetaz. Etxe abereen arau hauste larrien ziigorren gaia tratatu genuenean, hitz egin genuen. Orixe instituturaetorri ziren bi legebiltzarkide egoera ezagutzea eta kotxea hango aparkalekuan utzi ndoren Larramendi auzoko kafetegi batera joan ginen. Tartean



TOLOSAKO
UDALA

hiru-lau txakur kaka saltatu behar izan genituen ta legebiltzarkide horietako batek esan zuen, zer demontre gertatzen da Tolosan txakur kakeekin? Momentu horretan ezin izan nuen ezer erantzun, ordenantza bat daukagu, jendeak jaso beharko luke txakur kaka, badirudi ez dela bezain beste zibilatua. Agian arazo honekin zerbait egin beharko litzateke, heldu beharko genioke serioago, sensibilizazio kanpainak eginez edo horrela jokatzeko duten herritar horiei behar diren isunak jarritz, ddena delakoak eginez, portaera hauek ez gertatzeko. Momentu horretan lotsatuta gelditu nintzen. Kanpainak egin beharko litzateke.”

... Alkatea: Erabat ados nago Iñaki zuk esandakoarekin. Modu guztiera jakin, neronek sinatzen ditudalako, isun asko ari gara jartzen. Erabat ados nago kanpaina bat egitearekin.”

Besterik gabe, 21:00ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA